// NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia | Iruña, 2022ko ekainaren 2a | 72. ZK.

## A U R K I B I D E A

A SAILA:
**Foru lege proiektuak:**
—Foru Legea, guztira 4.761.112 euroko kreditu berezi bat ematekoa, finantzatze aldera Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrizanak eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoek ukitutako Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuenak. Akats zuzenketa (3. or.).

B SAILA:
**Foru lege proposamenak:**
—Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Akats zuzenketa (4. or.).

F SAILA:
**Galderak:**
—Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuen lanpostu hutsei edo egiturazkoei buruzkoa buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
—Galdera, Carlos III Osasun Institutuaren txosten bati buruzkoa, zeinak gomendatzen edo premiatzen baitu Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren ereduan aldaketa egitera buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—Galdera, ospitale laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, Nafarroako ondare-ondasunen jabeen betebeharrak beteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-guneei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Galdera, jarduketa eskatzen duten higiezinei eta aztarnategiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

—Galdera, Next Generation funtsekin ondare-ondasunetako jarduketak finantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Parlamentuan aldi baterako enplegua egonkortzeko Erabakia, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan. Akats zuzenketa (25. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—2/2022 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz (26. or.).

I SAILA:

**Planak, komunikazioak eta programak:**

—Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako plan estrategikoa. Ebazpen-proposamenak aurkezteko epea luzatzea (40. or.).

—Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2021-2025. Ebazpen-proposamenak aurkezteko epea luzatzea (40. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Foru Legea, guztira 4.761.112 euroko kreditu berezi bat ematekoa, finantzatze aldera Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrizanak eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoek ukitutako Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuenak.

*AKATS ZUZENKETA*

Akats bat atzeman da guztira 4.761.112 euroko kreditu berezi bat emateko Foru Legean, finantzatze aldera Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrizanak eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoek ukitutako Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuenak. Foru lege hori 2022ko maiatzaren 18ko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, honako zuzenketa hau egin da:

Honako hau dioen tokian:

«3. Kreditu berezi hori, aipatu 4.200.000 euroko zenbatekoan, finantzatuko da “Toki Ogasunen Partaidetza Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakina” izeneko 113002-12100-8700-000003 aurrekontu-partidaren kargura».

Honakoa behar du:

«3. Kreditu berezi hori, aipatu 4.200.000 euroko zenbatekoan, finantzatuko da “Toki Ogasunen Partaidetza Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakina” izeneko 114000-13000-8700-000003 aurrekontu-partidaren kargura».

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**B saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

*AKATS ZUZENKETA*

Akats bat aurkitu da 2022ko maiatzaren 30eko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakian, zeinaren bidez onartzen baitzen Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Lege proposamenaren izapidetzea. Aipatu erabakia 2022ko maiatzaren 31ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona hemen zuzenketa:

Erabakiaren bigarren puntuan, honako hau dioen tokian: “Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea”. Honakoa behar du: “Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Herritarrekiko Harremanetako Batzordearen esku uztea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuen lanpostu hutsei edo egiturazkoei buruzkoa buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuen lanpostu hutsei edo egiturazkoei buruzkoa buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00081). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak galdera horri erantzunez eman beharreko informazioa:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko medikuen lanpostu huts edo egiturazkoen kopurua, Oinarrizko Osasun Eskualde, LELZ, OKLZ, LZA eta ospitale-zerbitzuen arabera xehakatuak”.

Eskatutako informazioa ematen da “Bete gabeko lanpostuak 2022-03-31n” dokumentuan, eskatu den bezala xehakatuta. Emandako informazioaren kontzeptua eta bai langileen kapituluari bai osasun laguntzari dagokien esparru honen kontzeptua direla-eta, gauza bat da lanpostu batek titular egonkorrik ez izatea eta beste bat lanpostu hori bete gabe egotea eta herritarrei laguntzarik ez ematea. Nafarroako oinarrizko osasun laguntzako medikuen plantillaren kasuan, adibidez, lanpostuen % 97 profesionalek beteta daude une hauetan, alegia, kontu administratiboetatik harago, osasun langileak ari dira lanpostu horiek betetzen eta etengabeko prestazioa ematen. Gainerako lanpostuei dagokienez, 700 kasu ingurutik 22tan zenbait formulatara jo da arreta eskaintzeko; esaterako, lanaldi osagarriak egitea oinarrizko osasun laguntzako taldeko profesionalek edo landa eremuko larrialdi zerbitzuetakoek (LELZ).

Beste alde batetik, osasungintzaren maila horri dagokionez nabarmentzekoa da Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratu dela Familia Medikuntzako eta Pediatriako azken lan eskaintza publikoan sartutako 141 lanpostuei (107 lanpostu eta 34 lanpostu, hurrenez hurren) dagozkien izendapen-proposamenen zerrenda, eta horrekin batera epea hasi dela profesional horiek lanpostuez jabe daitezen;

lehenbiziko espezialitatekoak berrogei bat herritan banatuta daude, eta bigarrenekoak 23tan. Maiatzerako dago aurreikusita prozesu administratiboa burutu eta profesionalak laneratzea. Berdin gertatzen da beste espezialitate batzuetan, honelako edo halako formuletara jotzen baita behar den arreta emateko.

Osasun Departamentuak aurrera egiten jarraitzen du plantillen finkapenaren eta fidelizazioaren aldeko bere apustuan, eta horretarako erabiltzen dituen formulen artetik nabarmentzen da lan eskaintza publikoen bidea, jauzi kualitatiboa baita esparru honetan. Hain zuzen ere, 2019tik deialdietan 1.369 lanpostu eskaini dira guztira, aurreko bi legegintzaldietan baino askoz gehiago, eta bitartean lan-ildo horri eusten zaio, epe laburrean beste lanpostu sorta bat eskaintzeko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Osasun kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Egonkortasunez bete gabeko lanpostu huts edo egiturazkoak, 2022-03-31n

| Aurkib. | Unitatearen azalpena | Lanpos | Egínkizunaren azalpena | Espezialitatearen azalpena |
|---|---|---|---|---|
| 1 | OOL: ALTSASUKO OOLT | 60187 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 2 | OOL: ALTSASUKO OOLT | 68474 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 3 | OOL: ELIZONDOKO OOLT | 60891 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 4 | OOL: ELIZONDOKO OOLT | 72138 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 5 | OOL: IRURTZUNGO OOLT | 60857 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 6 | OOL: LEITZAKO OOLT | 69439 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 7 | OOL: ULTZAMAKO OOLT | 66834 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 8 | OOL: BURLATAKO OOLT | 69387 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 9 | OOL: ZARRAKAZTELUKO OOLT | 60900 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 10 | OOL: ZARRAKAZTELUKO OOLT | 60856 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 11 | OOL: ZIZUR-ETXABAKOIZKO OOLT | 71770 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 12 | OOL: ZIZUR-ETXABAKOIZKO OOLT | 540769 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 13 | OOL: IZABAKO OOLT | 60532 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 14 | OOL: IZABAKO OOLT | 60276 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 15 | OOL: MILAGROSAKO OOLT | 60302 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 16 | OOL: ERRIBERRIKO OOLT | 69113 | LZA-KO MEDIKUA | |
| 17 | OOL: AZKOIENGO OOLT | 60575 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 18 | OOL: AZKOIENGO OOLT | 66293 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 19 | OOL: AZKOIENGO OOLT | 69170 | LZA-KO MEDIKUA | |
| 20 | OOL: ZANGOZAKO OOLT | 60894 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 21 | OOL: NAF. LARR. ZUZ. ETA HIL ALA BIZIKO LARR. ID. TEK. | 61042 | LZB-KO MEDIKUA | |
| 22 | OOL: NAF. LARR. ZUZ. ETA HIL ALA BIZIKO LARR. ID. TEK. | 69415 | OSPITALEZ KANPOKO LARRIALDIETAKO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 23 | OOL: NAF. LARR. ZUZ. ETA HIL ALA BIZIKO LARR. ID. TEK. | 69411 | OSPITALEZ KANPOKO LARRIALDIETAKO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 24 | OOL: NAF. LARR. ZUZ. ETA HIL ALA BIZIKO LARR. ID. TEK. | 69412 | OSPITALEZ KANPOKO LARRIALDIETAKO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 25 | OOL: NAF. LARR. ZUZ. ETA HIL ALA BIZIKO LARR. ID. TEK. | 71183 | LZB-KO MEDIKUA | |
| 26 | OOL: NAF. LARR. ZUZ. ETA HIL ALA BIZIKO LARR. ID. TEK. | 71182 | LZB-KO MEDIKUA | |
| 27 | OOL: NAF. LARR. ZUZ. ETA HIL ALA BIZIKO LARR. ID. TEK. | 67836 | LZB-KO MEDIKUA | |
| 28 | OOL: TAFALLAKO LARRIALDIETAKO ZERBITZU ARRUNTA | 67839 | LZA-KO MEDIKUA | |
| 29 | TUT: ERRADIOLOGIA ATALA | 71209 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 30 | TUT: ERRADIOLOGIA ATALA | 68758 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 31 | TUT: ERRADIOLOGIA ATALA | 69943 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 32 | TUT: ERRADIOLOGIA ATALA | 69942 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 33 | TUT: ERRADIOLOGIA ATALA | 65264 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 34 | TUT: ERRADIOLOGIA ATALA | 67336 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 35 | TUT: ERRADIOLOGIA ATALA | 70973 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 36 | TUT: BARNE MEDIKUNTZAREN ATALA | 68760 | BFE/ALBOKOA | NEFROLOGIA |
| 37 | TUT: BARNE MEDIKUNTZAREN ATALA | 65622 | BFE/ALBOKOA | ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOA |
| 38 | TUT: BARNE MEDIKUNTZAREN ATALA | 63840 | BFE/ALBOKOA | NEFROLOGIA |
| 39 | TUT: BARNE MEDIKUNTZAREN ATALA | 69931 | BFE/ALBOKOA | DERMATOLOGIA MEDIKO-KIRURGIKOA ETA BENEREOLOGIA |
| 40 | TUT: FARMAZIA ATALA | 520178 | BFE/ALBOKOA | OSPITALEKO FARMAZIA |
| 41 | TUT: ERREHABILITAZIO ATALA | 65182 | BFE/ALBOKOA | MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA |
| 42 | TUT: ERREHABILITAZIO ATALA | 70742 | BFE/ALBOKOA | MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA |
| 43 | TUT: LARRIALDI ZERB. | 67787 | LARRIALDIETAKO MEDIKU ALBOKOA | |
| 44 | TUT: LABORATEGI ATALA | 65626 | BFE/ALBOKOA | MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIA |
| 45 | TUT: TUTERA MENDEBALDEKO OOLT | 64576 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 46 | TUT: TUTERA EKIALDEKO OOLT | 68300 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 47 | TUT: CORELLAKO OOLT | 534625 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 48 | TUT: CORELLAKO OOLT | 68624 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 49 | TUT: CORELLAKO OOLT | 70941 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 50 | TUT: BUÑUELGO OOLT | 64396 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 51 | TUT: VALTIERRA-CADREITAKO OOLT | 71212 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 52 | TUT: VALTIERRA-CADREITAKO OOLT | 65658 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 53 | TUT: VALTIERRA-CADREITAKO OOLT | 64562 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 54 | LIZ: OSASUN BARRUTIKO ZUZ. ASISTENTZIALA | 68959 | BFE/ALBOKOA | DERMATOLOGIA MEDIKO-KIRURGIKOA ETA BENEREOLOGIA |
| 55 | LIZ: OTORRINOLARINGOLOGIA UN. | 71946 | BFE/ALBOKOA | OTORRINOLARINGOLOGIA |
| 56 | LIZ: KIRURGIA OROKORRAREN ZERB. | 62998 | BFE/ALBOKOA | KIRURGIA OROK. ETA DIG. APAR. |
| 57 | LIZ: BARNE MEDIKUNTZA ZERB. | 68647 | BFE/ALBOKOA | BARNE MEDIKUNTZA |
| 58 | LIZ: OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA ZERB. | 68052 | BFE/ALBOKOA | OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA |
| 59 | LIZ: PEDIATRIA ATALA | 67652 | BFE/ALBOKOA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 60 | LIZ: ERRADIOLOGIA ATALA | 71735 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 61 | LIZ: ERRADIOLOGIA ATALA | 68605 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 62 | LIZ: ERRADIOLOGIA ATALA | 70574 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 63 | LIZ: ERRADIOLOGIA ATALA | 63623 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 64 | LIZ: ERRADIOLOGIA ATALA | 62596 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 65 | LIZ: OFTALMOLOGIA ATALA | 62647 | BFE/ALBOKOA | OFTALMOLOGIA |
| 66 | LIZ: OFTALMOLOGIA ATALA | 67949 | BFE/ALBOKOA | OFTALMOLOGIA |
| 67 | LIZ: ERREHABILITAZIO ATALA | 71132 | BFE/ALBOKOA | MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA |
| 68 | LIZ: LIZARRAKO OOLT | 535665 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 69 | LIZ: LIZARRAKO OOLT | 535975 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 70 | LIZ: LIZARRAKO OOLT | 535618 | OOLT-KO PEDIATRA | |
| 71 | LIZ: LODOSAKO OOLT | 71506 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 72 | LIZ: LODOSAKO OOLT | 62659 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 73 | LIZ: SAN ADRIANGO OOLT | 66627 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 74 | LIZ: VILLATUERTAKO OOLT | 68207 | OOLT-KO PEDIATRA | PEDIATRIA ETA HAREN ARLO ESPEZIFIKOAK |
| 75 | LIZ: VIANAKO OOLT | 535701 | OOLT-KO MEDIKUA | |
| 76 | NOU: NAFARROAKO ODOL ETA EHUN BANKUA | 66484 | BFE/ALBOKOA | HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIA |
| 77 | NOU: NAFARROAKO ODOL ETA EHUN BANKUA | 590057 | BFE/ALBOKOA | HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIA |
| 78 | NOU: MED. PREB. ETA OSP. HIGIENEAREN ZERB. | 67124 | BFE/ALBOKOA | MEDIKUNTZA PREBENTIBOA ETA OSASUN PUBLIKOA |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 79 | NOU: ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOAREN ZERB. | 61660 | BFE/ALBOKOA | ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOA |
| 80 | NOU: BIHOTZEKO KIRURGIAREN ZERB. | 63621 | BFE/ALBOKOA | KIRURGIA KARDIOBASKULARRA |
| 81 | NOU: OSPITALIZAZIO ATALA | 64529 | BFE/ALBOKOA | PNEUMOLOGIA |
| 82 | NOU: DIETETIKA ETA NUTRIZIO ATALA | 67098 | BFE/ALBOKOA | ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOA |
| 83 | NOU: NEFROLOGIA ZERB. | 65445 | BFE/ALBOKOA | NEFROLOGIA |
| 84 | NOU: BARNE MEDIKUNTZA ZERB. | 65778 | BFE/ALBOKOA | BARNE MEDIKUNTZA |
| 85 | NOU: B OSPITALIZAZIO ATALA | 71107 | BFE/ALBOKOA | BARNE MEDIKUNTZA |
| 86 | NOU: D OSPITALIZAZIO ATALA | 67754 | BFE/ALBOKOA | BARNE MEDIKUNTZA |
| 87 | NOU: OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA ZERB. | 65211 | BFE/ALBOKOA | OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA |
| 88 | NOU: SEXU ETA UG. OS. ARRETARAKO BURLATAKO | 60200 | BFE/ALBOKOA | OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA |
| 89 | NOU: AURPEGI ETA MASAILEZURREKO KIR. ZERB. | 66459 | BFE/ALBOKOA | AHOKO ETA AURPEGI-MASAILETAKO KIRURGIA |
| 90 | NOU: DERMATOLOGIA ZERB. | 60950 | BFE/ALBOKOA | DERMATOLOGIA MEDIKO-KIRURGIKOA ETA BENEREOLOGIA |
| 91 | NOU: KIRURGIAKO ARLO KLINIKOA | 62941 | BFE/ALBOKOA | KIRURGIA OROK. ETA DIG. APAR. |
| 92 | NOU: KIRURGIA ORTOPEDIKOAREN ETA TRAUM. ZERB. | 71960 | BFE/ALBOKOA | KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA |
| 93 | NOU: HELDUEN TRAUMATOLOGIA ATALA | 65256 | BFE/ALBOKOA | KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA |
| 94 | NOU: GOIKO GORPUTZ-ADARREKO KIR. ORT. ETA TR. | 62778 | BFE/ALBOKOA | KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA |
| 95 | NOU: OINEKO KIR. ORT. ETA TR. ATALA | 63113 | BFE/ALBOKOA | KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA |
| 96 | NOU: OTORRINOLARINGOLOGIA ZERB. | 69587 | BFE/ALBOKOA | OTORRINOLARINGOLOGIA |
| 97 | NOU: OTORRINOLARINGOLOGIA ZERB. | 69744 | BFE/ALBOKOA | OTORRINOLARINGOLOGIA |
| 98 | NOU: ANESTESIA TOKOGINEKOLOGIKOAREN ATALA | 67110 | BFE/ALBOKOA | ANESTESIA ETA KONORTERATZEA |
| 99 | NOU: KIRURGIAREN D ATALA | 68164 | BFE/ALBOKOA | ANESTESIA ETA KONORTERATZEA |
| 100 | NOU: ATZEKO POLOAREN ATALA | 64897 | BFE/ALBOKOA | OFTALMOLOGIA |
| 101 | NOU: UROLOGIA ZERB. | 63161 | BFE/ALBOKOA | UROLOGIA |
| 102 | NOU: MEDIKUNTZA NUKLEARRAREN ZERB. | 62094 | BFE/ALBOKOA | MEDIKUNTZA NUKLEARRA |
| 103 | NOU: MEDIKUNTZA NUKLEARRAREN ZERBITZUA | 71127 | BFE/ALBOKOA | MEDIKUNTZA NUKLEARRA |
| 104 | NOU: LARRIALDI OROKORRETARAKO ZERB. | 67201 | LARRIALDIETAKO MEDIKU ALBOKOA | |
| 105 | NOU: LARRIALDI OROKORRETARAKO ZERB. | 71121 | LARRIALDIETAKO MEDIKU ALBOKOA | |
| 106 | NOU: NEURORRADIOLOGIA ATALA | 71113 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 107 | NOU: BULARRETAKO ERRADIOLOGIA ATALA | 64388 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 108 | NOU: ERRADIOLOGIA KARDIOBASKULARRAREN ATALA | 63739 | BFE/ALBOKOA | ERRADIODIAGNOSTIKOA |
| 109 | OM: OM: OSASUN MENTALEKO KUDEATZAILETZA | 67293 | BFE/ALBOKOA | PSIKIATRIA |
| 110 | OM: OSASUN MENTALEKO IB SEKTOREA-BURLATA | 71575 | BFE/ALBOKOA | PSIKIATRIA |
| 111 | OM: TARTEKO BALIABIDEEN ARLOKO ZERB. | 513341 | BFE/ALBOKOA | PSIKIATRIA |
| 112 | OM: HAUR ETA GAZTEEN OSASUN MENTALEKO | 67628 | BFE/ALBOKOA | PSIKIATRIA |
| 113 | ZERB. ZENT.: PRESTAZIO ETA ITUNEN KUDEAK. ZERB. | 500374 | MEDIKU IKUSKATZAILEA | |
| 114 | ZERB. ZENT.: ITUNEN ATAL TEKNIKO ASISTENTZIALA | 61682 | MEDIKUA | |
| 115 | ZERB. ZENT.: FARMAZIA PREST. KUDEATZEKO ZERB. | 60310 | BFE/ALBOKOA | OSPITALEKO FARMAZIA |

## Galdera, Carlos III Osasun Institutuaren txosten bati buruzkoa, zeinak gomendatzen edo premiatzen baitu Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren ereduan aldaketa egitera buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Carlos III Osasun Institutuaren txosten bati buruzkoa, zeinak gomendatzen edo premiatzen baitu Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren ereduan aldaketa egitera buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00082), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: “Ba al dago Carlos III Osasun Institutuaren txosten bat, zeinak gomendatzen edo premiatzen baitu Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren ereduan aldaketa egitera?”. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuak (IdiSNA) osasun ikerketarako institutu gisa akreditatua izateko eskatu zuen 2017ko abenduan, bat etorriz uztailaren 3ko 14/2007 Legearekin eta Biomedikuntzaren edo osasunaren arloko ikerketarako institutuen akreditazioari buruzko ekainaren 24ko 279/2016 Errege Dekretuarekin.

Carlos III Osasun Institutuko zuzendariak 2019ko urtarrilaren 24an emandako ebazpenaren bidez OII akreditazioa eman zitzaion IdiSNAri, bost urterako, 279/2016 Errege Dekretuarekin bat etorriz.

Akreditazioa emateko oinarritzat hartu zen Ebaluazio Batzordearen 2018ko abenduaren 18ko txostena. Honako hau zioen:

Sin embargo, tras la valoración de los recursos, capacidades, gobernanza, estructura organizativa, infraestructuras, actividades y producción científica del IIS, así como el informe de auditoría, la Comisión de Evaluación por unanimidad considera que IDISNA presenta deficiencias significativas que resulta necesario mejorar.

En primer lugar, existe escasa integración funcional tanto a nivel científico como de gestión, siendo esta integración uno de los elementos clave de todo IIS. Así pues, en relación a la actividad científica, se evidencia una escasa identificación de IDISNA en la producción de los investigadores adscritos, no existe participación de IDISNA en los productos de transferencia e innovación tecnológica resultado de la actividad de los grupos de investigación del IIS y hay una baja proporción de grupos de carácter mixto entre instituciones públicas y privadas. En relación a la gestión económica de IDISNA, la gestión directa del órgano de gestión del IIS supone un reducido porcentaje del presupuesto anual declarado por IDISNA en los últimos 5 años; por otra parte no se documenta la existencia de acuerdos para unificar la gestión global de los recursos procedente de los proyectos financiados de los grupos adscritos a IDISNA, bajo la supervisión de la dirección científica para cumplir los objetivos del plan estratégico. Respecto al plan de calidad, se considera necesario realizar una implementación efectiva que hasta el momento no se evidencia.

Por la importancia de estos aspectos para la consolidación del IIS, de acuerdo con el modelo establecido en la normativa vigente, la Comisión de Evaluación acuerda instar al Instituto de Salud Carlos III a realizar un seguimiento y, transcurridos doce meses, evaluar la situación de la integración, según lo dispuesto en el artículo 18 del RD 279/2016, de 24 de junio, sobre acreditación de institutos de investigación biomédica o sanitaria.

Hortaz, zenbait akats nabarmen identifikatuta eman zen akreditazioa, eta urtebeteren buruan jarraipen-auditoretza egitekotan (beraz, 2020aren hasierarako aurreikusi zen auditoretza egitea):

– **integrazio zientifiko** eskasa, alegia:

– IdiSNAren identifikazio urria argitalpenen filiazioan.

– IdiSNAk ez du parte hartzen transferentzia eta berrikuntzan.

– Erakunde publikoen eta pribatuen arteko talde mistoen proportzio txikia.

– **kudeaketa ekonomikoaren integrazio** eskasa, alegia:

– IdiSNAri atxikitako ikertzaileentzako I+G funtsen guztizko zenbatekoaren ehuneko txikia kudeatzen du kudeaketa-organoak (FIdiSNA).

– I+G funtsen kudeaketa orokorra ez dago zuzendaritza zientifikoaren gidaritzapean bateraturik Plan Estrategikoa betetzeko.

– Kalitate plana inplementatu gabe dago.

2021eko otsailean, uste baino urtebete geroago, COVID-19aren epidemiaren ondorioz, ISCIIIk iragarrita zegoen jarraipen-auditoretzaren hasiera jakinarazi zion IdiSNAri.

Behar zen dokumentazioa aurkeztu ondoren, 2021eko maiatzaren 4an eta 5ean egin zen auditoretza bisita. Hurrengo egun batean auditore taldeak auditoretza txostena aurkeztu zuen, IdiSNAk ebaluazio batzordeari aurkeztutako oharrekin batera.

IdiSNAri buruzko jarraipen-jarduketetarako ebaluazio batzordeak IdiSNAk akreditazioari eustearen kontrako txostena eman zuen 2021eko uztailaren 16an. Orduan alegazioetarako epea hasi zen.

2021eko uztailaren 28an IdiSNA Fundazioaren Patronatua bildu zen, eta hau erabaki zuen:

**Primero.** - Realizar los cambios necesarios en la arquitectura institucional del Instituto que faciliten la integración y que conviertan al Complejo Hospitalario de Navarra (CHN) en el núcleo institucional de IdiSNA.

**Segundo.** - Iniciar el procedimiento de selección de una nueva dirección científica del Instituto vinculada al Complejo Hospitalario de Navarra.

**Tercero.** – La actual Directora Científica, cuyo mandato se encuentra en funciones por expiración del máximo tiempo previsto en los estatutos, y a la que se agradece expresamente la labor realizada, permanecerá en funciones hasta el 1 de septiembre.

Alegazioetarako epearen barnean, IdiSNAk alegazioak aurkeztu zizkion ISCIIIri; Patronatuaren 2021eko uztailaren 28ko erabakiak aurkeztu zizkion, eta argudiatu zuen erabaki horiek IdiSNAren norabide aldaketa garrantzitsua eraginen zutela, hobeki bete ahalko zirela akreditaziorako baldintzak, eta zuzendu ahalko zirela jarraipen-txostenean jasotako akatsak.

2021eko abuztuan zehar, IdiSNA osatzen duten erakunde eta entitateek azterketa eta negoziazioei ekin zieten. Batzorde Delegatuaren 2021eko abuztuaren 19ko bileran erabaki zen kanpoko bi aholkulari espezializaturi eskaintzak eskatzea, Patronatuaren uztailaren 28ko erabakiak gauzatzeko bide-orria prestatzeko eta betetzeko.

Patronatuak uztailaren 28an hartutako erabakien ondoriozko aldaketa nabarmenak egiteko baimena eskatu zitzaion ISCIIIri 2021eko irailaren 20an, goian aipatutako 279/2016 Errege Dekretuaren 21.3 artikuluari jarraituz.

Batzorde Delegatuaren 2021eko azaroaren 10eko bileran erabaki zen aldaketei buruzko txostena onestea. Aldaketa horiek IdiSNAren lotura juridikoari eta Plan Estrategikoan berritu beharreko oinarriei dagozkie.

Batzorde Delegatuaren 2021eko azaroaren 24ko bileran erabaki zen zuzendari zientifiko berri baten izendapena proposatzea Patronatuari, Patronatuak berak uztailaren 28an erabakitakoa betetzeko. Proposatutako zuzendaria Nicolás Martínez Velilla da, eta NOUri lotuta dago.

2021eko azaroaren 30ean IdiSNAk ISCIIIri aurkeztu zizkion Batzorde Delegatuaren azaroaren 10eko eta 24ko bileretako aktak, Patronatuaren uztailaren 28ko erabakiak betetzera bideratuak.

IdiSNA Fundazioaren Patronatuak bilera egin zuen 2021eko abenduaren 16an eta erabaki hauek hartu zituen: onestea Plan Estrategiko berriaren oinarrien dokumentua, IdiSNAren lotura juridikoaren aldaketak proposatzen dituen txostena eta IdiSNAko zuzendari zientifiko berriaren izendapena, eta aintzat hartzea IdiSNAren lotura juridikoa osatzen duten dokumentuen zirriborro artikulatuak, hau da, integrazio hitzarmenarena eta estatutuena.

Batzorde Delegatuak beste bilera bat egin zuen 2022ko urtarrilaren 27an, eta erabaki zuen zuzendariorde zientifiko bat izendatzea, bai eta Zuzendaritza Zientifikoko bokal bat ere, zuzendari zientifikoari laguntzeko. Lanerako metodologia ere ezarri zen, IdiSNAren eraberritzearen ondoriozko zenbait alderdi zehazteko:

– Kudeaketa eredua

– Lotura juridikoa (integrazio hitzarmena eta estatutuak)

– Ikerketa taldeen eta arloen definizioa

– Zeharkako kostuak

– Saiakuntza klinikoak

– Jabetza industrialeko eskubideak

– Europako proiektuak.

2022ko lehen hilabete hauetan aurrera egiten jarraitu da IdiSNAren eraberritzeak hartzen dituen lau eremu nagusietan:

– Ikerketa arloak, taldeak eta institutuari atxikitako ikertzaileen katalogoa definitzea.

– Institutuaren jardueretan eta ikerketaren emaitzetan parte hartzeko baldintzak.

– Institutua kudeatzeko eredua, 279/2016 Errege Dekretuak eta Akreditazio Gidak eskatzen duten kudeaketa bakar eta bereiziaren baldintza betetzeko egokiagoa.

– Integrazio-hitzarmena eta kudeaketa-organoaren estatutuak (IdiSNA Fundazioarenak), amaierako bertsioetan, egin beharreko aldaketak eginda.

Bitartean, IdiSNA 2024ko urtarrilean berrakreditazioa lortzera eraman behar duen lana ere sustatu da. Horretarako zenbait dokumentu berritu behar dira, Plan Estrategikotik hasita, eta ebidentziak eta adierazleak sortu, halako moldez non IdiSNAk 2023ko ekainean berrakreditazioa eskatu eta lortzeko modua izanen duen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

# Galdera, ospitale laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ospitale laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00083), ospitale laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Zein dira ospitale laguntzan neurtzen ari diren farmaziako adierazleak?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren dokumentu bat eransten da, errezeten kalitatearen adierazleak azaltzen dituena 2022rako.

Haietako zein hartzen dira kontuan kudeaketa-itunetan?

LE1- Abantaila terapeutikorik gabeko medikamentuekin tratatutako pazienteak

LE2- Aukerako baliokide terapeutikoetan egindako gastua (baliokide terapeutikoen erabilera erlatiboa LEan)

LE4- AIEE-en erabilera bihotz-hodietako patologia duten pazienteekin

LE3- Bioantzekoekin tratatutako pazienteak

LE5- Morfinarekin tratatutako pazienteak, opioide gogorragoen aldean

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

# Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzan neurtzen diren farmaziako adierazleei buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00084), Oinarrizko Osasun Laguntzan neurtzen ari diren farmaziako adierazleei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Zein dira Oinarrizko Osasun Laguntzan neurtzen ari diren farmaziako adierazleak?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren dokumentu bat eransten da, errezeten kalitatearen adierazleak azaltzen dituena 2022rako.

Haietako zein hartzen dira kontuan kudeaketa-itunetan?

OOL2.1- Gastua hipertentsio-kontrakoetan/hipertentsio arterialaren kontrola

OOL2.2- Gastua diabetes-kontrakoetan/gluko-hemoglobinaren kontrola 2 motako diabetesean

OOL2.3- Adinekoentzat gomendatzen ez diren farmakoak (antikolinergikoak eta antidepresibo triziklikoak) erabiltzen dituzten 75 urtetik gorako pazienteak

OOL2.4- Estatinak eta ezetimiba 75 urtetik gorako pazienteen lehen mailako prebentzio kardiobaskularrerako

OOL2.7- BGBK, pneumonia eta bronkitisa tratatzeko kinolonak (lebofloxazinoa, moxifloxazinoa) hartzen dituzten pazienteak, amoxizilinaren, amoxizilina-klabulanikoaren edo zefuroximaren aldean

Botikekin zerikusia duten baina Farmaziako informazio sistematik ateratzen ez diren beste adierazle batzuk ere jaso dira.

– Ahotiko tratamendu antikoagulatzailea (azenokumarola edo warfarina) hartzen duten pazienteen artetik azken TTD neurketa % 60tik gorakoa izan dutenen prebalentzia

– Zortzi medikamentu edo gehiago hartzen dituzten 65 urtetik gorako pazienteen ehunekoa

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

---

## Galdera, Nafarroako ondare-ondasunen jabeen betebeharrak beteari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako ondare-ondasunen jabeen betebeharrak beteari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-22/PES-00085 galdera idatzia egin du departamentuak ondare-ondasunen jabeei begira egindako jarduketei buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lehenbiziko galdera dela eta –" Legea ezarri zenetik Kultura Departamentuak eta Ondare Atalak zenbat jarduketa abiarazi duten ondasunen jabeei begira, eskatzeko eta, kasua bada, exigitzeko haiek mantendu, gorde eta zaintzeko duten betebeharra bete dezaten–

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historikoaren Zerbitzuak, ondare higiezina mantendu, gorde eta zaintzeko eginkizuna betez, 2005. urtetik 2021era bitartean 5.000 bat txosten eman ditu higiezin babestu eta katalogatuekin zerikusia duten askotariko gaiei buruz. Txosten horiek udalerrika, poligonoka eta lurzatika ordenaturik artxibatzen dira, baina ez titularraren edo gaiaren arabera. Oro har, eginkizun hori udalen bitartez izapidetzen da.

Bigarren zatiari erantzunez –"Zenbat jarduketa eta betearazpen abiarazi eta burutu diren 2005etik egun arte Nafarroako Eliza Katolikoaren aurka, ondasun publikoaren defendatzeko eta haren betebeharrak bete daitezen exigitzeko"–

Ondare Historikoaren Zerbitzuak adierazi duenez, 2005ean foru legea onetsi zenetik ez da izapidetu lege horren 29.1 artikuluaren araberako

"errekerimendurik aurretiaz eta subsidiarioki" interes kulturaleko ondasun deklaratutako higiezinen titularren aurka, eta, beraz, ezta Eliza Katolikoaren aurka ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 28an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

---

## Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-guneei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin COVID-19aren aurkako txertatze-guneei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00086), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: "COVIDaren aurkako zer txertatze-gune prestatu ditu Nafarroako Gobernuak eta zer denboran egon da prest haietako bakoitza?". Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Txertatze-guneak behean azaltzen dira. Txertatze denbora, berriz, 2. atalean zehazten da.

| IRUÑEKO BARRUTIA | | |
|---|---|---|
| **TXERTATZE-GUNEA** | **1. KOKALEKUA** | **2. KOKALEKUA** |
| Talde ibiltariak (egoitzak, espetxea…) | | |
| Azpilagañako gune zentrala | Azpilagañako kiroldegia | |
| Oliveto kondearen etorbideko gune zentrala | Oliveto kondearen etorbideko eraikina | |
| Ermitagañako gune zentrala | Ermitagañako osasun etxea | |
| Foremeko gune zentrala | FOREM eraikina | |
| Maristetako gune zentrala | Maristetako eraikina | |
| REFENAko gune zentrala | REFENA eraikina | |
| Arrotxapeko gune zentrala | Arrotxapeko kiroldegia | |
| Apaizgaitegiko gune zentrala | Apaizgaitegiko eraikina | |
| NUPeko gune zentrala | NUPeko kiroldegia | |
| NOUko gune zentrala | Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko eraikina | |
| Osasun eskualde oinarrizkoen taldeak | | |
| ALTSASU-IRURTZUN-ETXARRI-LEITZA TALDEA | | Burunda pilotalekua, Altsasu |
| ALTSASU-ETXARRI TALDEA | | Burunda pilotalekua, Altsasu |
| IRURTZUN-ALTSASU-ETXARRI-LEITZA TALDEA | | Irurtzungo kiroldegia |
| IRURTZUN-LEITZA TALDEA | | Irurtzungo kiroldegia |
| DONEZTEBE-ELIZONDO-LESAKA TALDEA | | Doneztebeko kiroldegia |
| TAFALLA-ARTAXOA-ERRIBERRI-ZARRAKAZTELU TALDEA | | Tafallako Kulturgunea |
| TAFALLA-ARTAXOA-ERRIBERRI TALDEA | | Tafallako Kulturgunea |
| **Osasun eskualde oinarrizkoa** | | |
| ALTSASU | Osasun etxea / Kontsultategia ALTSASU | Burunda pilotalekua, Altsasu |
| ANTSOAIN | Osasun etxea / Kontsultategia ANTSOAIN | |
| AGOITZ | Osasun etxea / Kontsultategia AGOITZ | Agoizko pilotalekua |
| ARANGUREN | Osasun etxea / Kontsultategia ARANGUREN | |
| ARTAXOA - LARRAGA | Osasun etxea / Kontsultategia ARTAXOA - LARRAGA | Larragako pilotalekua |
| AURITZ | Osasun etxea / Kontsultategia AURITZ | |
| AZPILAGAÑA | Osasun etxea / Kontsultategia AZPILAGAÑA | |
| BARAÑAIN | Osasun etxea / Kontsultategia BARAÑAIN | |
| BERRIOZAR | Osasun etxea / Kontsultategia BERRIOZAR | |
| BURLATA | Osasun etxea / Kontsultategia BURLATA | |
| BUZTINTXURI | Osasun etxea / Kontsultategia BUZTINTXURI | |
| ZARRAKAZTELU | Osasun etxea / Kontsultategia ZARRAKAZTELU | Zarrakazteluko kiroldegia |

| TXERTATZE-GUNEA | 1. KOKALEKUA | 2. KOKALEKUA |
|---|---|---|
| ALDE ZAHARRA | Osasun etxea / Kontsultategia ALDE ZAHARRA | |
| DONEZTEBE | Osasun etxea / Kontsultategia DONEZTEBE | Doneztebeko kiroldegia |
| ETXABAKOITZ | Osasun etxea / Kontsultategia ETXABAKOITZ | |
| ELIZONDO | Osasun etxea / Kontsultategia ELIZONDO | Baztan pilotalekua |
| ERMITAGAÑA | Osasun etxea / Kontsultategia ERMITAGAÑA | |
| ETXARRI ARANATZ | Osasun etxea / Kontsultategia ETXARRI ARANATZ | Etxarri Aranazko pilotalekua |
| UHARTE | Osasun etxea / Kontsultategia UHARTE | |
| II. ZABALGUNEA | Osasun etxea / Kontsultategia II. ZABALGUNEA | |
| IRURTZUN | Osasun etxea / Kontsultategia IRURTZUN | Irurtzungo kiroldegia |
| IZABA | Osasun etxea / Kontsultategia IZABA | Izabako pilotalekua |
| ITURRAMA | Osasun etxea / Kontsultategia ITURRAMA | |
| LEITZA | Osasun etxea / Kontsultategia LEITZA | Leitzako kiroldegia |
| LESAKA | Osasun etxea / Kontsultategia LESAKA | Harriondoa Kultur Etxea |
| MENDILLORRI | Osasun etxea / Kontsultategia MENDILLORRI | |
| ARROSADIA | Osasun etxea / Kontsultategia ARROSADIA | |
| NOAIN | Osasun etxea / Kontsultategia NOAIN | |
| ERRIBERRI | Osasun etxea / Kontsultategia ERRIBERRI | Erriberriko kiroldegia |
| ORKOIEN | Osasun etxea / Kontsultategia ORKOIEN | |
| AZKOIEN | Osasun etxea / Kontsultategia AZKOIEN | Azkoiengo kulturgunea |
| GARES | Osasun etxea / Kontsultategia GARES | Garesko pilotalekua |
| ARROTXAPEA | Osasun etxea / Kontsultategia ARROTXAPEA | |
| ZARAITZU | Osasun etxea / Kontsultategia ZARAITZU | Ibarraren Etxea Ezkaroze |
| SANDUZELAI | Osasun etxea / Kontsultategia SANDUZELAI | |
| DONIBANE | Osasun etxea / Kontsultategia DONIBANE | |
| ZANGOZA | Osasun etxea / Kontsultategia ZANGOZA | Zangozako Cantolagua pilotalekua |
| SARRIGUREN | Osasun etxea / Kontsultategia SARRIGUREN | |
| TAFALLA | Osasun etxea / Kontsultategia TAFALLA | Tafallako Kulturgunea |
| TXANTREA | Osasun etxea / Kontsultategia TXANTREA | |
| ULTZAMA | Osasun etxea / Kontsultategia ULTZAMA | Larraintzarko pilotalekua |
| ATARRABIA | Osasun etxea / Kontsultategia ATARRABIA | |
| ZIZUR | Osasun etxea / Kontsultategia ZIZUR | |

| TUTERAKO BARRUTIA | |
|---|---|
| **TXERTATZE-GUNEA** | **KOKALEKUA** |
| Talde ibiltariak (egoitzak…) | |
| Aita Lasa plazako gune zentrala | Aita Lasa plazako eraikina |
| Jesuitetako gune zentrala | Jesuitetako eraikina |
| RSOko gune zentrala | Reina Sofía Ospitaleko eraikina |
| Osasun eskualde oinarrizkoa | |
| ABLITAS | Osasun etxea / Kontsultategia ABLITAS |
| ARGUEDAS | Osasun etxea / Kontsultategia ARGUEDAS |
| BUÑUEL | Osasun etxea / Kontsultategia BUÑUEL |
| BUÑUEL | Buñuelgo kiroldegia |
| CABANILLAS | Osasun etxea / Kontsultategia CABANILLAS |
| CADREITA | Osasun etxea / Kontsultategia CADREITA |
| CASCANTE | Osasun etxea / Kontsultategia CASCANTE |
| CASCANTE | Cascanteko kiroldegia |
| CASTEJÓN | Osasun etxea / Kontsultategia CASTEJÓN |
| CINTRUÉNIGO | Osasun etxea / Kontsultategia CINTRUÉNIGO |
| CINTRUÉNIGO | Cintruenigoko kiroldegia |
| CORELLA | Osasun etxea / Kontsultategia CORELLA |
| CORELLA | Corellako kiroldegia |
| CORTES | Osasun etxea / Kontsultategia CORTES |
| FITERO | Osasun etxea / Kontsultategia FITERO |
| FUSTIÑANA | Osasun etxea / Kontsultategia FUSTIÑANA |
| MILAGRO | Osasun etxea / Kontsultategia MILAGRO |
| MONTEAGUDO | Osasun etxea / Kontsultategia MONTEAGUDO |
| MURCHANTE | Osasun etxea / Kontsultategia MURCHANTE |
| RIBAFORADA | Osasun etxea / Kontsultategia RIBAFORADA |
| TUTERA EKIALDEA | Osasun etxea / Kontsultategia TUTERA EKIALDEA |
| TUTERA MENDEBALDEA | Osasun etxea / Kontsultategia TUTERA MENDEBALDEA |
| VALTIERRA | Osasun etxea / Kontsultategia VALTIERRA |
| VALTIERRA-CADREITA | Valtierrako kiroldegia |
| ALESBES | Osasun etxea / Kontsultategia ALESBES |

| LIZARRAKO BARRUTIA | |
|---|---|
| **TXERTATZE-GUNEA** | **KOKALEKUA** |
| Talde ibiltariak (egoitzak, ikastetxeak…) | |
| GOOko gune zentrala | García Orcoyen Ospitalea |
| Osasun eskualde oinarrizkoa | |
| ABARTZUZA | Osasun etxea / Kontsultategia ABARTZUZA |
| ALLO | Osasun etxea / Kontsultategia ALLO |
| ANTZIN-AMESKOA | Osasun etxea / Kontsultategia ANTZIN-AMESKOA |
| ANDOSILLA | Osasun etxea / Kontsultategia ANDOSILLA |
| ARROITZ | Osasun etxea / Kontsultategia ARROITZ |
| AIEGI | Osasun etxea / Kontsultategia AIEGI |
| AZAGRA | Osasun etxea / Kontsultategia AZAGRA |
| CÁRCAR | Osasun etxea / Kontsultategia CÁRCAR |
| DEIKAZTELU | Osasun etxea / Kontsultategia DEIKAZTELU |
| LIZARRA | Osasun etxea / Kontsultategia LIZARRA |
| EULATE | Osasun etxea / Kontsultategia EULATE |
| LARRION/AMILLAO | Osasun etxea / Kontsultategia LARRION/AMILLAO |
| LERIN | Osasun etxea / Kontsultategia LERIN |
| LEZAUN | Osasun etxea / Kontsultategia LEZAUN |
| LODOSA | Osasun etxea / Kontsultategia LODOSA |
| LOS ARCOS | Osasun etxea / Kontsultategia LOS ARCOS |
| LUKIN | Osasun etxea / Kontsultategia LUKIN |
| MENDABIA | Osasun etxea / Kontsultategia MENDABIA |
| MENDAZA | Osasun etxea / Kontsultategia MENDAZA |
| OTEITZA | Osasun etxea / Kontsultategia OTEITZA |
| JAITZ | Osasun etxea / Kontsultategia JAITZ |
| SAN ADRIÁN | Osasun etxea / Kontsultategia SAN ADRIÁN |
| SARTAGUDA | Osasun etxea / Kontsultategia SARTAGUDA |
| SESMA | Osasun etxea / Kontsultategia SESMA |
| TUTERA | Osasun etxea / Kontsultategia TUTERA |
| VIANA | Osasun etxea / Kontsultategia VIANA |
| VILLATUERTA | Osasun etxea / Kontsultategia VILLATUERTA |
| ZUDAIRI | Osasun etxea / Kontsultategia ZUDAIRI |

2.- Zenbat txerto jarri da hilean gune bakoitzean?

Jarritako txertoen kopurua ematen da, COVID txertaketarako berariaz sortutako agenden arabera.

| Barrutia | IRUÑA |
|---|---|
| | |
| **Ilarako etiketak** | **Pertsona kopuruen baturak** |
| Talde ibiltariak (egoitzak, espetxea…) | **21.039** |
| 2020ko abendua | 372 |
| 2021eko urtarrila | 9.797 |
| 2021eko otsaila | 7.366 |
| 2021eko martxoa | 55 |
| 2021eko iraila | 2.485 |
| 2021eko urria | 390 |
| 2021eko azaroa | 256 |
| 2021eko abendua | 209 |
| 2022ko urtarrila | 79 |
| 2022ko martxoa | 30 |
| **Azpilagañako gune zentrala** | **5.562** |
| 2021eko martxoa | 4.168 |
| 2021eko apirila | 1.394 |
| **Oliveto kondearen etorbideko gune zentrala** | **17.280** |
| 2021eko abendua | 17.280 |
| **Ermitagañako gune zentrala** | **16.396** |
| 2021eko abendua | 16.396 |
| **Foremeko gune zentrala** | **111.231** |
| 2021eko otsaila | 1 |
| 2021eko martxoa | 156 |
| 2021eko apirila | 11.443 |
| 2021eko maiatza | 15.276 |
| 2021eko ekaina | 18.569 |
| 2021eko uztaila | 8.030 |
| 2021eko abuztua | 3.888 |
| 2021eko iraila | 10.475 |
| 2021eko urria | 8.338 |
| 2021eko azaroa | 18.659 |
| 2021eko abendua | 13.263 |
| 2022ko urtarrila | 2.397 |
| 2022ko otsaila | 1 |
| 2022ko martxoa | 735 |
| **NOUko gune zentrala** | **21.104** |
| 2021eko urtarrila | 1.733 |
| 2021eko otsaila | 8.011 |
| 2021eko martxoa | 3.668 |
| 2021eko apirila | 355 |
| 2021eko maiatza | 432 |
| 2021eko ekaina | 731 |
| 2021eko uztaila | 200 |
| 2021eko abuztua | 133 |
| 2021eko iraila | 40 |

| | |
|---|---|
| 2021eko urria | 15 |
| 2021eko abendua | 5.786 |
| **Maristetako gune zentrala** | **146.598** |
| 2021eko apirila | 19.038 |
| 2021eko maiatza | 38.087 |
| 2021eko ekaina | 26.661 |
| 2021eko uztaila | 31.861 |
| 2021eko abuztua | 21.825 |
| 2021eko iraila | 9.126 |
| **REFENAko gune zentrala** | **34.030** |
| 2020ko abendua | 375 |
| 2021eko urtarrila | 5.806 |
| 2021eko otsaila | 14.295 |
| 2021eko martxoa | 13.510 |
| 2021eko ekaina | 44 |
| **Arrotxapeko gune zentrala** | **2.796** |
| 2021eko martxoa | 2.796 |
| **Apaizgaitegiko gune zentrala** | **128.825** |
| 2021eko abendua | 23.341 |
| 2022ko urtarrila | 67.817 |
| 2022ko otsaila | 26.729 |
| 2022ko martxoa | 10.938 |
| **NUPeko gune zentrala** | **277.325** |
| 2021eko martxoa | 7.439 |
| 2021eko apirila | 33.003 |
| 2021eko maiatza | 32.764 |
| 2021eko ekaina | 71.528 |
| 2021eko uztaila | 63.360 |
| 2021eko abuztua | 51.164 |
| 2021eko iraila | 18.067 |
| **Osasun eskualde oinarrizkoa** | **238.824** |
| 2021eko otsaila | 700 |
| 2021eko martxoa | 9.272 |
| 2021eko apirila | 23.007 |
| 2021eko maiatza | 26.922 |
| 2021eko ekaina | 32.173 |
| 2021eko uztaila | 35.234 |
| 2021eko abuztua | 14.260 |
| 2021eko iraila | 4.247 |
| 2021eko urria | 9.518 |
| 2021eko azaroa | 39.353 |
| 2021eko abendua | 19.261 |
| 2022ko urtarrila | 18.578 |
| 2022ko otsaila | 4.732 |
| 2022ko martxoa | 1.567 |
| **Guztizko orokorra** | **1.021.010** |

| Barrutia | TUTERA |
|---|---|
| | |
| **Ilarako etiketak** | **Pertsona kopuruen baturak** |
| **Talde ibiltariak (egoitzak…)** | **8.711** |
| 2021eko urtarrila | 2.141 |
| 2021eko otsaila | 2.041 |
| 2021eko martxoa | 2.786 |
| 2021eko apirila | 834 |
| 2021eko maiatza | 59 |
| 2021eko iraila | 826 |
| 2021eko urria | 24 |
| **Aita Lasa plazako gune zentrala** | **31.850** |
| 2021eko abendua | 2.844 |
| 2022ko urtarrila | 17.408 |
| 2022ko otsaila | 7.495 |
| 2022ko martxoa | 4.103 |
| **RSOko gune zentrala** | **4.648** |
| 2021eko urtarrila | 741 |
| 2021eko otsaila | 1.366 |
| 2021eko martxoa | 585 |
| 2021eko apirila | 324 |
| 2021eko maiatza | 573 |
| 2021eko ekaina | 194 |
| 2021eko uztaila | 42 |
| 2021eko abuztua | 23 |
| 2021eko iraila | 35 |
| 2021eko urria | 221 |
| 2021eko azaroa | 299 |
| 2021eko abendua | 245 |
| **Jesuitetako gune zentrala** | **9.517** |
| 2021eko abendua | 9.517 |
| **Osasun eskualde oinarrizkoa** | **149.967** |
| 2021eko urtarrila | 159 |
| 2021eko otsaila | 813 |
| 2021eko martxoa | 4.733 |
| 2021eko apirila | 15.607 |
| 2021eko maiatza | 20.683 |
| 2021eko ekaina | 30.575 |
| 2021eko uztaila | 30.614 |
| 2021eko abuztua | 18.804 |
| 2021eko iraila | 6.116 |
| 2021eko urria | 4.166 |
| 2021eko azaroa | 11.661 |
| 2021eko abendua | 6.036 |
| **Guztizko orokorra** | **204.693** |

| Barrutia | LIZARRA |
|---|---|
| | |
| **Ilarako etiketak** | **Pertsona kopuruen baturak** |
| **Talde ibiltariak (egoitzak, ikastetxeak…)** | **6.107** |
| 2021eko urtarrila | 2.319 |
| 2021eko otsaila | 1.178 |
| 2021eko martxoa | 584 |
| 2021eko apirila | 95 |
| 2021eko abendua | 840 |
| 2022ko urtarrila | 1.091 |
| **GOOko gune zentrala** | **38.434** |
| 2021eko urtarrila | 181 |
| 2021eko otsaila | 598 |
| 2021eko martxoa | 188 |
| 2021eko apirila | 1.971 |
| 2021eko maiatza | 4.504 |
| 2021eko ekaina | 5.144 |
| 2021eko uztaila | 5.786 |
| 2021eko abuztua | 2.663 |
| 2021eko iraila | 2.564 |
| 2021eko urria | 1.114 |
| 2021eko azaroa | 1.865 |
| 2021eko abendua | 4.235 |
| 2022ko urtarrila | 3.520 |
| 2022ko otsaila | 2.588 |
| 2022ko martxoa | 1.513 |
| **Osasun eskualde oinarrizkoa** | **87.449** |
| 2021eko martxoa | 4.915 |
| 2021eko apirila | 9.857 |
| 2021eko maiatza | 9.873 |
| 2021eko ekaina | 14.290 |
| 2021eko uztaila | 13.223 |
| 2021eko abuztua | 8.233 |
| 2021eko iraila | 2.579 |
| 2021eko urria | 3.218 |
| 2021eko azaroa | 6.369 |
| 2021eko abendua | 8.831 |
| 2022ko urtarrila | 3.202 |
| 2022ko otsaila | 2.013 |
| 2022ko martxoa | 846 |
| **Guztizko orokorra** | **131.990** |

3.- Langile kopurua hilean txertatze-gune bakoitzeko, eta langile horien profil profesionala.

Ezin da erantzun zenbat langile izan diren hilean txertatze-gune bakoitzeko, hori txertatzegunearen antolaketa-ereduaren eta iraupenaren araberakoa delako, besteak beste.

Txertaketan erabilitako eredu orokorra azalduko dugu:

| Lerroak | Hitzordu kop. (10 min/lerroko, prestatze, atseden eta bilketa denbora kontuan hartu gabe) | Erizainen koordinatzailea | Erizainen koordinaziorako indargarria | Erizainak (txertoak jartzea) | Txertoak kargatzea: erizainak. Erizainik ezean Farmaziako teknikariak | Administrazio arloa | Zerbitzu orokorrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **Irizpide orokorrak:**<br>- 3-4 hitzordu 8 urtetik beherakoentzat eta 70 urtetik gorakoentzat.<br>- 4-5 hitzordu 9-69 urte bitartekoentzat. | Baloratu | | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 2 | | Baloratu | | 2 | 1 | 1 | 1 |
| 3 | | 1 | | 3 | 2 | 2 | 1 |
| 4 | | 1 | | 4 | 2 | 2 | 1 |
| 5 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 6 | 2 | 3 | 2 |
| 6 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 7 | 3 | 3 | 2 |
| 7 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 8 | 3 | 0 | 2 |
| 8 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 9 | 3 | 3 | 2 |
| 9 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 10 | 3 | 4 | 3 |
| 10 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 12 | 4 | 4 | 3 |
| 11 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 13 | 4 | 4 | 3 |
| 12 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 14 | 4 | 5 | 3 |
| 13 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 15 | 4 | 5 | 3 |
| 14 | | 1 | 1 Al.-Ol. | 16 | 4 | 5 | 3 |

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Galdera, jarduketa eskatzen duten higiezinei eta aztarnategiei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin jarduketa eskatzen duten higiezinei eta aztarnategiei buruz Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-22/PES-00087 galdera idatzia egin du Nafarroako Gobernuak jarduketa eskatzen duten higiezinei eta aztarnategiei buruz duen zerrenda dela eta. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historikoaren Zerbitzuak interes kulturaleko ondasun eta ondasun inbentariatu izendatutako higiezinen kontserbazio egoerari buruzko informazio teknikoa dauka, monumentuetara egindako bisitetan bildua. Esku hartzeko beharra era eta neurri askotakoa izan daiteke.

culturanavarra.es webgunean “BIC/BIN monumentuetarako sarbidea” argitaratu dela eta, jarduketaren premia handiena duten hamaika monumentuak jaso dira; horien egoera txarrak jendea monumentura sartzea galarazten du. IREKIERA etiketaren kolore moreak adierazten du inguruabar hori: https://visitas.fcpatrimoniodenavarra.com/

Aztarnategi arkeologikoei dagokienez, urtero Indusketen Plana onesten da, abenduaren 31 baino lehen eskatutako indusketa, prospekzio eta zundaketa lanen eskaerekin. Vianako Printzea Erakundeko-Kulturako zuzendari nagusiaren 166/2021eko Ebazpenaren bidez 2021eko Indusketen Plana onetsi zen, eta han 53 esku-hartze baimendu ziren. Aurten 60 eskaera baino gehiago jaso dira, eta banaka aztertu dira 2022ko Indusketen Plana egiteko. Iragan apirilaren 13an 2022ko Indusketen Planaren proposamena aurkeztu zitzaion Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluari, eta hark aginduzko txostena eman behar du. Ebaluazioa amaitu ondoren, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiari igorriko zaio, ebazpen bidez onets dezan.

Gainera, zenbait aztarnategitan urtero mantentze eta garbiketa lanetarako esku-hartzeak kontratatzen dira, eta beste batzuetan kontserbazio eta finkatze obrak egiten dira toki entitateen aztarnategi arkeologikoen lehengoratze eta babeserako partidaren kargura.

Ondare historikoaren kontserbaziorako eta babeserako irizpideak ezartzea atal bakoitzeko teknikariei dagokie.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 22an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

---

## Galdera, Next Generation funtsekin ondare-ondasunetako jarduketak finantzatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Next Generation funtsekin ondare-ondasunetako jarduketak finantzatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko martxoaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-22/PES-00088 galdera idatzia egin du Next Generation funtsekin finantzatzeko baldintzetan kokatzen ahal diren jarduketei buruz. Hau da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Komeni da aldez aurretik argitzea 2022ko martxoaren 15eko Parlamentuko agerraldian ez zirela aipatu Olivako monasterioko jarduketa eta Tuterako Santa Maria Madalena elizako portadaren azterketa Next Generation funtsetako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen bitartez (SEM) finantzatu beharreko ekintzatzat. Vianako Andre Maria elizako dorrea soilik hautatu da Kultura Ministerioaren Next Generation funtsekin finantzatzeko. Halaber, Leireko monasterioko eta Nafarroako Museoko energia-efizientziarako eta jasanga-

rritasunerako proiektuak Next Generation funtsekin finantzatuko dira, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Done Jakue Turismo Plan Nazionaletik etorriko dira funts horiek.

Kultura Ministerioak C24.I2.P3.1 osagairako –”Autonomia erkidegoen, toki korporazioen eta titular pribatuen ondarearen gaineko jarduketak, Espainiako kultura ondarea zaharberritzeko eta haren balioa nabarmentzeko”– ezarri dituen baldintzetan honako hau azaltzen da:

HAUTAGAI IZATEKO IRIZPIDEAK

Jarduketak eginen dira, alde batetik, autonomia erkidegoekin, probintzia diputazioekin eta toki entitateekin batera, bai eta erlijio erakundeekin eta beste titular pribatu batzuekin ere, interes kulturaleko ondasun gisa banakako babesa duten ondasun higiezinen gain.

Zenbait baldintza bete beharko dira, hala nola turismorako azpiegituraren bat izatea ondasunaren inguruan, ondasunetik 30 km-ra, gehienez (ostatuak, jatetxeak, tren geltokiak, aireportu edo portuak), edo azken 5 urteetan etengabe urritu izana inguru horretako biztanleria.

Jarduketetarako irizpideak alde biko bileretan jorratu dira 2021ean zehar. Menorcan 2021eko azaroan Ondarearen Kontseiluak egindako bileran ere horretaz aritu ziren 17 autonomia erkidegoetako eta bi hiri autonomoetako arduradunak eta Arte Ederren Zuzendaritza Nagusia, Espainiako Kultura Ondarearen Institutuko Zuzendariordetza Nagusiaren bitartez.

Jarduketek helburu nagusia izan behar dute interes kulturaleko ondasun gisa banakako babesa duten higiezinak kontserbatu eta zaharberritzea. Interes kulturaleko ondasun bati lotutako indusketa arkeologikoen edo obra berrien proiektuetan, kontserbazio-zaharberritze partiden aurrekontuak eta exekuzioak gutxienez % 70eko pisua izan behar dute aurrekontu osoan.

Espezialistek egin behar dituzte proiektuak, eta administrazio eskudunek ontzat eman behar dituzte.

Proposatutako jarduketak ezin izanen dira inola ere finantzatu bi aldiz, alegia, SEMeko bi osagairi esleitutako funtsekin.

CID 356 helburuak ezartzen du proiektua 2023ko azaroaren 30a baino lehen gauzatu behar dela.

Interes kulturaleko ondasun gisa banakako babesa duten eraikinetan esku hartzea hain konplexua izanda, eta ezarritako epea kontuan izanda (2023ko azaroaren 30an amaituko da), autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean interes kulturaleko ondasunetan egin beharreko kontserbazio/zaharberritze jarduketen gutxieneko kopurua bat izatea erabaki da.

C24.I2.P3.1 osagairako –”Autonomia erkidegoen, toki korporazioen eta titular pribatuen ondarearen gaineko jarduketak, Espainiako kultura ondarea zaharberritzeko eta haren balioa nabarmentzeko”– SEM baldintza horiek guztiak aintzat hartuta hautatu zen Vianako Andre Maria elizako dorrea, Europako helburuak lortzeko egokiena zelakoan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 20an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Nafarroako Parlamentuan aldi baterako enplegua egonkortzeko Erabakia, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan.

*AKATS ZUZENKETA*

Akats bat aurkitu da Nafarroako Parlamentuan aldi baterako enplegua egonkortzeko Erabakian —2022ko maiatzaren 30eko Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsia—, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan. Erabaki hori 2022ko maiatzaren 31ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona hemen zuzenketa:

Erabakiaren eranskinaren bigarren puntuan, honako hau dioen tokian:

“Prentsa Atala Atalburutza”. Honakoa behar du

“Prentsa atala”.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**H saila:**
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

# 2/2022 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikuluak aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak 2/2022 Foru Lege-dekretua onetsi du, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz, eta 2022ko maiatzaren 24ko 101. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. Nafarroako Parlamentuari igorri dio, horrek baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Xedatzea 2022ko ekainaren 9ko Osoko Bilkuran eginen direla maiatzaren 23ko 2/2020 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. Foru Lege-dekretu horren bidez neurriak hartzen dira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz. (10-22/DLF-00002).

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 2/2022 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz

### HITZAURREA

2021eko abenduaren 29an, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Legearen hitzaurrean adierazten denez, enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasun handia murrizteko beharrezkoak diren egiturazko erreformei aurre egiteko beharrari erantzun nahi zaio, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin bat. Plan horrek Europako Batzordearen aldeko ebaluazioa jaso du.

Ildo horretan, 20/2021 Legearen xedea da, batetik, bitarteko langileen aldi baterako izaera indartzea, eta horrez gain, izaera hori eskuratzeko prozedurak argitzea, kargu-uzteen arrazoiak finkatzea, lanpostu hutsak betetzeko langileen bitarte baterako izendapenen gehieneko iraupena mugatzea (prebentzio-neurri gisa, figura hori gehiegi erabil ez dadin), eta gehieneko iraunaldiak ez betetzearen ondorioak ezartzea.

Bestalde, lege honek, egungo egoera arintzeko berehalako neurri gisa, administrazio publikoetako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bat egitea aurreikusten du, ekainaren 27ko 3/2017 Legean eta uztailaren 3ko 6/2018 Legean

araututakoez gain (3/2017 Legea 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa da, eta 6/2018 Legea, berriz, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa), helburua baita enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murriztea eta gehienez ere %8ko egiturazko behin-behinekotasuna lortzea administrazio publiko guztietan.

Aipatutako abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, hamargarren xedapen gehigarrian, xedatzen du hura Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko dela Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako moduan.

Izan ere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikuluaren arabera, Nafarroak, bere foru araubidearengatik, eskumen osoa du Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gainean, Estatuko oinarrizko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz. Bestalde, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluak lehenengo apartatuan ezartzen duenez, kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroako Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak ematen ahalko ditu, foru lege-dekretuaren forma hartuko dutenak. Manu horrek berak lege-mailako xedapen mota horren bidez arautu ezin diren gaiak zerrendatzen ditu, baina hizpide dugun gai hau ez dago horien artean.

Horrenbestez, foru lege-dekretu honek Nafarroako Foru Komunitatean administrazio publikoen zerbitzuko langileak arautzeko dagoen foru araudi propioa egokitu nahi du, foru ordenamendu juridikoan sartuz Estatuko oinarrizko araudi horren funtsezko eskubide eta betebeharrak, aldi baterako langileei dagokienez, kasu honetan administrazio-kontratazioari lotuak, bai eta egonkortze prozesu honetan tramitatu behar diren langileen hautapen prozedurak behar bezala antolatzeko behar diren gainerako aurreikuspenak ere.

Arau hau foru lege-dekretu gisa tramitatzea justifikatzen duten arrazoiak abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak abian jartzeko premiaren ondorio dira. Izan ere, prozesu horietan egin beharreko enplegu publikoaren eskaintzak 2022ko ekainaren 1a baino lehen onetsi eta argitaratu beharko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Bestalde, enplegu publikoaren eskaintzan sartutako lanpostuak betetzeko hautapen prozesuetarako deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko dira, eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko da prozesu horien ebazpena.

I. tituluan, Nafarroako Administrazio Publikoetan aldi baterako langileak administrazio-araubidean kontratatzeko lege-arauak aldatzen dira. Zehazki, honako hauek aldatzen dira: abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 88. artikulua eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29. artikulua. Izan ere, bi artikulu horiek administrazio-araubidean kontratatutako langileei buruzkoak dira. Aldaketa horrek berekin dakar, batez ere, administrazio-kontrataziorako kasuak definitzea (horiei erantsi zaie gehiegizko zereginak egoteagatik edo zereginak pilatzeagatik egindako kontratua), administrazio-kontratazioaren gehieneko iraupen-epea ezartzea (eta, puntu horretan, nabarmentzekoa da, batetik, hiru urteko gehieneko iraupena izanen dutela lanpostu hutsak betetzeko kontratuek, eta, bestetik, urtebetera murriztu dela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, behar bezala justifikatutako langile beharrei erantzuteko eta behar horiei erantzuteko langile finko aski ez dagoela frogatuta, egiten diren kontratuen gehieneko iraupena), eta konpentsazio ekonomiko bat finkatzea administrazio-kontratudunen gehieneko iraunaldia betetzen ez duten kasuetarako.

Ondoren, II. tituluan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek aldi baterako enplegua egonkortzeko deitu beharreko prozesuak arautzen dira. Horri dagokionez, enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartu beharreko lanpostuen zenbaketa arautzen da, bai eta aldi baterako enplegua egonkortzeko tramitatu behar diren hautapen prozedurak ere –oposizio-lehiaketa eta salbuespenezko merezimendu-lehiaketa–, eta enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan agertzen diren lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketei aplikatu beharreko erregulazioa finkatzen da; tramiteen sinplifikazioa eta hautapen prozeduren fase bakoitzaren epeak arautzen dira, prozedurak adierazitako epeetan ebatzi ahal izateko; azkenik, egonkortze prozesuak ez gainditzeagatik eman beharreko konpentsazio ekonomikoa arautzen da. Halaber, aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenden funtzionamendua eta kudeaketa arautzen dira, egonkortze prozedurak tramitatu bitartean aplikatzekoak direnak.

Lehenengo xedapen gehigarriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoak II. tituluan jasotako erregulaziora atxikitzeko aukera aurreikusten du, osorik edo partez.

Bestalde, bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriek arautzen dituzte, hurrenez hurren, Hezkuntza Departamentuak aldi baterako enplegua egonkortzeko tramitatzen dituen prozedurei aplikatu beharreko arauak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak tramitatzen dituzten aldez aurreko barne egokitzapenerako prozedurei aplikatu beharreko arauak.

Azkenik, foru lege-dekretu honek xedapen iragankor bakarra du, tresna informatikoak administrazio-kontratudunen erregulazio berrira egokitzeari buruzkoa, eta hiru azken xedapen: lehenengoak arau hori betearazteko behar diren baliabideak gaitzea aurreikusten du; bigarrenak Nafarroako Parlamentura bidaltzeko betebeharra ezartzen du, baliozkotu ahal izateko; eta hirugarrena, berriz, indarrean jartzeari buruzkoa da.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrak aztertu du proiektua.

Honaino azaldu diren arrazoiek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, aipatu neurriak berehala hartzea behar-beharrezkoa baita.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2022ko maiatzaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATZEN DUT:

## I. TITULUA
## Nafarroako Administrazio Publikoetan aldi baterako langileak administrazio-araubidean kontratatzeko lege-arauak aldatzea

**1. artikulua.** Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 88. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratuko da:

“88. artikulua.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek honako kasu hauetan bakarrik eginen dituzte administrazio-kontratuak:

a) Langileak ordezkatzea.

b) Beren plantilla organikoetan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzea, gehienez ere hiru urterako.

c) Aldi baterako programak gauzatzea, azterlan edo proiektu zehatzak edo ohikoak ez diren lan bereziak egiteko. Programa horiek ezin izanen dute hiru urte baino gehiago iraun, baina hamabi hilabetera arte luzatzen ahalko dira, baldin eta programa Europako proiektu bat gauzatzearekin lotuta badago.

d) Gehiegizko zereginak egotea edo zereginak pilatzea; gehienez ere bederatzi hilabeterako. Ezin izanen da inola ere kontratu hau luzatu, ezta beste bat formalizatu ere, premia berari erantzuteko.

e) Ikastetxeetan, irakasleei eta laguntzako langileei dagokienez, behar bezala justifikatutako beharrei erantzutea, baldin eta egiaztatzen bada langile finko nahikorik ez dagoela horiei aurre egiteko. Kontratuaren iraupena kontratuan bertan ezarriko da, eta ez du inola ere gaindituko hurrengo ikasturtearen hasiera eguna. Beharrei aurre egiteko izenpetzen diren irakasleen kontratuetan ikastetxeetako curriculum-orduak nahiz ikasturte bakoitzari dagozkion unean uneko premiak jasotzen ahalko dira.

2. Langileak administrazio-araubidean kontratatzeak ez du inola ere ekarriko karrerako funtzionario-izaera aitortzea.

3. Artikulu honen lehen apartatuaren b) letran aurreikusitako kasuan, administrazio-kontratudun langileek betetako lanpostu hutsak betetzeko, lanpostuak betetzeko edo mugigarritasunerako arauz aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua azkenduko da, eta karrerako funtzionarioek soilik betetzen ahalko dute lanpostu huts hori, kasuan kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean; kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahalko dira administrazio-araubidean.

Salbuespen gisa, administrazio-kontratudun langileek aldi baterako betetzen duten lanpostuan jarraitzen ahalko dute, baldin eta dagokion deialdia argitaratu bada hiru urteko epean, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte betetzen ahalko du lanpostua,

eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko".

**2. artikulua.** Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29. artikulua aldatzea. Foru lege horren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da.

Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29. artikuluaren 1. apartatua aldatzen da (foru lege horren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da), eta honela idatzita geratuko da:

"1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak honako kasu hauetan bakarrik eginen ditu administrazio-kontratuak:

a) Langileak ordezkatzea.

b) Beren plantilla organikoetan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzea, gehienez ere hiru urterako.

c) Aldi baterako programak gauzatzea, azterlan edo proiektu zehatzak edo ohikoak ez diren lan bereziak egiteko. Programa horiek ezin izanen dute hiru urte baino gehiago iraun, baina hamabi hilabetera arte luzatzen ahalko dira, baldin eta programa Europako proiektu bat gauzatzearekin lotuta badago.

d) Gehiegizko zereginak egotea edo zereginak pilatzea; gehienez ere bederatzi hilabeterako. Ezin izanen da inola ere kontratu hau luzatu, ezta beste bat formalizatu ere, premia berari erantzuteko.

e) Behar bezala justifikatutako langile beharrei erantzutea, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako, baldin eta behar horiei erantzuteko langile finko aski ez dagoela frogatzen bada. Kontratuaren iraupena kontratuan bertan ezarriko da, eta ez da urtebetetik gorakoa izanen.

Ezarritako epea bukatutakoan, ezin izanen da kontratua luzatu behar berberei erantzuteko. Langileen behar berberek irauten badute, behar den lanpostu hutsa sortuko da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren plantilla organikoan eta erakunde autonomo horrentzat onesten den enplegu publikoaren hurrengo eskaintzan sartuko da, edo ezinezkoa bada, hurrengoan.

Lanpostu huts sortu berria aldi baterako betetzeko kontratua azkentzeko arrazoia izanen da hiru urteko epea betetzea. Horretarako, iraupen-denbora hartuko da kontuan: bai beste langile behar batzuei erantzuteko egindako hasierako kontratuarena, bai lanpostu hutsaren ondorengo kontratuarena. Kasu horietan ere, hurrengo apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

2. Langileak administrazio-araubidean kontratatzeak ez du inola ere ekarriko karrerako funtzionario-izaera aitortzea.

3. Artikulu honen lehen apartatuaren b) letran aurreikusitako kasuan, administrazio-kontratudun langileek betetako lanpostu hutsak betetzeko, lanpostuak betetzeko edo mugigarritasunerako arauz aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua azkenduko da, eta karrerako funtzionarioek soilik betetzen ahalko dute lanpostu huts hori, kasuan kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean; kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahalko dira administrazio-araubidean.

Salbuespen gisa, administrazio-kontratudun langileek aldi baterako betetzen duten lanpostuan jarraitzen ahalko dute, baldin eta dagokion deialdia argitaratu bada hiru urteko epean, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte betetzen ahalko du lanpostua, eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko".

**3. artikulua.** Konpentsazio ekonomikoa, administrazio-kontratudunen gehieneko iraunaldia betetzen ez denean.

1. Aurreko artikuluetan ezarritako gehieneko iraunaldiak betetzen ez badira, ukitutako kontratudun langileek konpentsazio ekonomikoa jasoko dute. Konpentsazio hori beren ordainsari finkoen hogei egunen baliokidea izanen da zerbitzu-urte bakoitzeko, eta urtebetetik beherako aldiak hilabeteka hainbanatuko dira, gehienez ere hamabi hilekotan.

2. Konpentsazio hori jasotzeko eskubidea lana benetan eteten den egunetik aurrera sortuko da, eta ez-betetzea sorrarazi duen kontratuari soilik dagokio zenbatekoa.

3. Ez da konpentsazio-eskubiderik izanen zerbitzu-harremana diziplina arrazoiengatik edo borondatez uko egiteagatik amaitzen bada.

## II. TITULUA
## Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek deitu beharrekoak

**4. artikulua.** Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartu beharreko lanpostuen zenbaketa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek, lege-dekretu hau betetzeko, enplegu publikoa egonkortzeko eskaintza onetsiko dute, eta hartan sartuko dira abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulua eta seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak aplikatzearen ondoriozko egiturazko lanpostuak, egon nahiz ez egon plantilletan, aurrekontu-zuzkidura baldin badute (20/2021 Legearen bidez, premiazko neurriak hartu ziren enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko). 2.1 artikuluaren ondorioetarako, 2017ko abenduaren 31 izanen da erreferentziako data, eta seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietarako, berriz, 2015eko abenduaren 31.

Ondorio horietarako, egiturazko lanpostuak dira premia egonkorrei erantzuten dietenak, luzaroan irauteko asmoz, lanpostua betetzen duen pertsonaren kontratu-harremana edozein dela ere.

Ez da etenalditzat joko lanpostua bete gabe egon den aldia, baldin eta lanpostua berriz ere benetan bete bada eta aldi horietako bakoitzaren iraupena laurogeita hamar egunetik gorakoa ez bada.

2. Adierazitako baldintzak betetzen dituzten lanaldi partzialeko lanpostuak enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartuko dira, modalitate horretan, eta horretarako, kontuan hartuko da egonkortze prozesuen ebazpenak ezin izanen duela inola ere ekarri ez gastua ez baliabideak handitzea.

3. Horrez gain, enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartuko dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan onetsitako egonkortze prozesuek ukitutako lanpostuak, honako hauetan jasotako aurreikuspenei jarraikiz: 3/2017 Legea, ekainaren 27koa, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; eta 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Horretarako baldintza izanen da horiek betetzeko deialdirik egin ez izana edo, deialdia egin eta ebatzi bada, bete gabe geratu izana.

4. Era berean, jada onetsitako enplegu publikoaren ordezte-tasei dagokien eskaintza batean sartutako lanpostuak ere sartuko dira, baldin eta baldintzak betetzen badituzte horiek modu finkoan betetzeko egonkortze prozeduretako baten bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera (horren bidez, premiazko neurriak hartu ziren enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko), eta baldin eta sarrerako hautapen prozedura baterako deialdia egin ez bazaie.

5. Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzetan adieraziko da lanpostuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak diren.

Lanaldi partzialeko lanpostuak baino ez dira beteko lan-kontratudunen araubide juridikoan; beraz, foru lege-dekretu honetan xedatutakoaren arabera tramitatzen diren hautapen prozedurak ebatzi ondoren, lanaldi osoko lanpostu baten esleipendun suertatzen diren pertsonak, betiere, funtzionarioen araubidean izanen dira.

**5. artikulua.** Hautapen prozedurak.

1. Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozedurak, foru lege-dekretu honetan jasotako aurreikuspenei jarraikiz onesten direnak, lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduen, gaitasunen eta publikotasunaren printzipioen arabera gauzatuko dira.

2. Ezin izanen dute parte hartu aldi baterako enplegua egonkortzeko deitzen diren sarrerako hautapen prozeduretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan deialdiaren xede den lanpostuan langile finko gisa ari diren langileek.

Baldintza hori betetzen ez duten pertsonak ezin izanen dira izendatu, eta baliorik gabe geratuko dira haien jarduketa guztiak, beren eskaeraren faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

3. Egonkortze prozesuetan sartutako lanpostuek abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen badituzte, oposizio-lehiaketa bidez beteko dira (20/2021 Legearen bidez, premiazko neurriak hartu ziren enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko); eta, enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartutako gainerako lanpostuak, salbuespenez, merezimendu-lehiaketa bidez beteko dira.

4. Oposizio-lehiaketa bidez bete beharreko lanpostuak eta salbuespenezko merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez bete beharreko lanpostuak dauden lanpostuetan, lehenik merezimendu-lehiaketa tramitatu eta ebatziko da, eta, ondoren, oposizio-lehiaketa.

**6. artikulua.** Epeak laburtzea eta tramiteak sinplifikatzea.

1. Egonkortze prozesuak 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi ahal izateko, hautapen prozeduren deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta haietan jasoko dira prozesuaren ezauga-

rriak, bai eta hautapen prozeduraren fase bakoitza tramitatzeko epeak ere. Honako hauek izanen dira:

a) Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 15 egun natural.

b) Deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendei alegazioak aurkezteko epea: 10 egun baliodun.

c) Merezimenduen behin-behineko balorazioari eta, hala badagokio, hautaproben behin-behineko emaitzen argitalpenari alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

d) Prozeduran parte hartzeko betebeharrak egiaztatzeko eta eskainitako lanpostu hutsak aukeratzeko epea: 10 egun baliodun.

e) Funtzionario izendatzeko edo, hala badagokio, lan-kontratudun finko gisa kontratatzeko behar den dokumentazioa aurkezteko epea: 10 egun baliodun, izendapen- edo kontratazio-proposamena argitaratzen denetik aurrera.

2. Egonkortze prozeduren epaimahai kalifikatzaileak deialdia onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko dira; epaimahaien kidekopurua bakoitia izanen da, hiru gutxienez, eta horien ordezkoen kopuru bera izendatu beharko da.

Epaimahaiak osatzerakoan, espezialitatearen printzipioa betetzen dela zainduko da, eta, horretarako, epaimahaikideen gehiengo osoak sartzeko eskatzen den jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko du, maila akademiko berekoa edo goragokoa, eta gizonen eta emakumeen ordezkaritza orekatua izateko joera izanen da.

Merezimendu-lehiaketa bidez deitutako hautapen prozeduretako epaimahaiak osatzean, ez da beharrezkoa izanen aurreko paragrafoan adierazitako titulazioa izatea.

Baldin eta kasu bakoitzean eskumena duen Langileria Batzordeak ez badu epaimahai bakoitzean dagokion kidea izendatzeko proposamenik egiten eskatzen zaionetik 15 egun naturaleko epean, deialdia egiten duen organoak izendatuko du kide hori hautatutako langileen ordezkarien artetik, dagokion eremuan.

3. Prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak, bai eta hautatzen diren izangaiak izendatzeko proposamena ere, Nafarroako Gobernuaren atariko deialdiaren web fitxan argitaratuko dira.

Baztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartutakoen behin betiko zerrenda, eta Nafarroako Gobernuaren atariko deialdiaren web fitxan argitaratzeko aginduko da.

4. Hautatutako izangaiak izendapen-ebazpenean finkatzen den egunean jabetuko dira lanpostuaz.

**7. artikulua.** Lanpostuak zehaztea hautapen prozeduretan.

1. Egonkortzeko hautapen prozeduretarako onesten diren deialdietan, bete beharreko gehieneko lanpostu kopurua zehaztuko da, eta foru lege-dekretu honen 10. artikuluan xedatutakoari jarraikiz tramitatzen den lekualdatze-lehiaketaren prozedura ebatzi ondoren eskaintzen diren lanpostu hutsen kopuru zehatzak zehaztu eta horien zenbakiak identifikatuko dira. Lekualdatze-lehiaketen ondorioz gelditzen diren lanpostuak kasuan kasuko sarrerako hautapen prozeduran sartuko dira.

Horretarako, lekualdatze-lehiaketaren ondorioz lanpostu bat esleitzen bazaio lanpostu erreserbarik ez duen burutza bat uzten duen langile finko bati, lekualdatze-lehiaketa batean parte hartuz borondatezko eszedentziatik zerbitzu aktibora itzultzen direnei, edo antolamendu juridikoan lanpostuak betetzeko aurreikusitako beste edozein modu edo kausagatik lanpostu zehatzik identifikatzen ez bada, sarrerako hautapen prozeduran sartuko da antzinatasun handienarekin aldi baterako eta etenik gabe okupatuta egon den lanpostu hutsa, birkokatze prozesu batean sartuta ez badago, ez eta hautapen prozesuak abian dituzten enplegu publikoaren eskaintzetan ere. Hori egiterik ez dagoenean, prozeduran sar daitekeen lanpostu hutsik ez dagoelako, murriztu eginen da foru lege-dekretu honekin bat onesten diren enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzetan sartutako lanpostu kopurua eta, hala badagokio, horien ondoriozko sarrerako deialdietan sartutakoena.

2. Funtzionarioen eskubideak baliatzearen ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan dagoen langile-kopuruan bikoiztasunik gerta ez dadin, foru lege-dekretu honen bidez onesten diren enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzak argitaratzen direnetik eta lanpostu hutsak hautatzeko epea irekitzen den arte, kasuan kasuko enplegu publikoaren eskaintzatik edo, horien ondorioz, lanpostuak sarrera-prozedura bidez betetzeko egiten diren deialdietatik kenduko dira lanpostu erreserbarik ez duen burutza bat uzten duten langile finkoei esleitutako lanpostuak, borondatezko eszedentziatik zerbitzu aktibora i-

tzultzen direnei esleitutakoak edo antolamendu juridikoan lanpostuak betetzeko aurreikusitako beste edozein modu edo kausagatik esleitutakoak, baldin eta plantilla organikoan lanpostu hutsik ez badago, egonkortze prozeduretan sartu gabe, eta lanpostu hori esleitzen ahal bazaie funtzionarioei, indarrean dagoen araudiak aitortzen dizkien eskubideak errespetatuz.

Lanpostu hutsak hautatzeko epea irekitzen den egunetik aurrera, eskainitako lanpostuek hutsik egon beharko dute, harik eta aldi baterako enplegua egonkortzeko deitutako sarrerako hautapen prozedura ebazten den arte.

**8. artikulua.** Oposizio-lehiaketaren prozedura.

1. Oposizio-lehiaketa bidez tramitatzen diren egonkortze prozedurek artikulu honetan xedatutakoa bete beharko dute. Oposizioaldian 60 puntu emanen dira, eta lehiaketaldian, berriz, 40.

2. Oposizioaldia baztertzailea izanen da, baina oposizioaldiko probak ez dira baztertzaileak izanen. Gainditzeko, 30 puntu lortu beharko dira.

3. C eta D mailetako lanpostuetan oposizio-lehiaketa bidez sartzeko deitzen diren hautapen prozeduretan, proba bakarra izanen da, test motakoa.

4. A eta B mailetako lanpostuetan sartzeko, oposizioaldian gehienez bi proba eginen dira. Bi proba egitea aurreikusten bada, biak egun bakarrean egiten ahalko dira.

5. Onesten diren oposizio-lehiaketen deialdietan, deitutako lanpostuaren edukiarekin zerikusia duten proba psikoteknikoak edo fisikoak egitea eskatzen ahalko da, baldin eta lanpostu horietan sartzeko prozedura arruntetan horrelako probak aurreikusten badira.

6. Oposizio-lehiaketa bidez deitutako prozeduretako lehenengo proba egiteko data adieraziko da prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean.

7. Hainbat lanpostutan sartzeko probak egun berean egiten ahalko dira.

8. Lehiaketaldia baloratzeko, oposizioaldia gainditu duten izangaiek soilik aurkeztu beharko dituzte merezimenduak.

9. Lehiaketaldian merezimendu hauek baloratuko dira:

a) Merezimendu profesionalak:

Administrazio publikoetan, deialdi bakoitza argitaratzen den egunera arte, egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 28 punturekin, puntuazio honen arabera:

a.1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko lanpostu berean, egindako zerbitzuak: 2,5 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

a.2) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, beste lanpostu batzuetan, egindako zerbitzuak: 1,75 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

a.3) Beste administrazio publiko batzuetan, lanpostu berean edo beste lanpostu batzuetan, egindako zerbitzuak: 0,86 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaio.

2. Honako a) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 28 puntukoa izanen da.

3. Zerbitzu-emate bakoitza hasten denetik amaitzen den arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.

4. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5. Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan betetako lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira.

Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuengatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

6. Aurreko azpiapartatuetan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk, gehienez ere 12 puntu:

b.1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan deialdi honen xede den lanpostu berean sartzeko prozesu bat gainditu izana, lanposturik gabe, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratutako deialdietan: 1,6 puntu lanposturik gabe gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.2) Ingelesa, frantsesa eta alemana:

Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik, plantilla organikoaren arabera honako lanpostu hauetan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez denean: kazetaria, prestakuntzako eta enpleguko erdi mailako tituluduna, gizarte-langilea, gizarte-hezitzailea, lan-harremanetako diplomaduna, liburutegiko arduraduna, turismo jardueretako ofiziala, basozaina, administraria, gelako burua, koordinazioko operadore-ofiziala eta koordinazioko operadore laguntzailea, telefonista-ofiziala eta telefonista, errepideetako zaintzailea eta etxezaina, bai eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen A eranskinean (Osasun estamentuak) jasotako osasun arloko lanpostuak ere (11/1992 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da): 2 puntu gehienez hizkuntza bakoitzagatik.

b.3) Euskara:

Euskara jakitea puntuazio honekin baloratuko da:

1. Eremu euskaldunean: Euskara jakiteagatik, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: 4,4 puntu gehienez.

2. Eremu mistoan: Euskara jakiteagatik, plantilla organikoaren arabera honako lanpostu hauetan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: kazetaria, prestakuntzako eta enpleguko erdi mailako tituluduna, gizarte-langilea, gizarte-hezitzailea, lan-harremanetako diplomaduna, liburutegiko arduraduna, turismo jardueretako ofiziala, basozaina, administraria, gelako burua, koordinazioko operadore-ofiziala eta koordinazioko operadore laguntzailea, telefonista-ofiziala eta telefonista, errepideetako zaintzailea eta etxezaina, bai eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen A eranskinean (Osasun estamentuak) jasotako osasun arloko lanpostuak ere (11/1992 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da): 2,8 puntu gehienez.

2. eta 3. apartatuetako oharrak:

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari aurreko apartatuetan hizkuntza bakoitzarentzat ezarritako baloraziorik handiena emanen zaio.

Titulu edo ziurtagiri hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 maila izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 jasoko da; A2 maila izanez gero, 2/5; B1 maila izanez gero, 3/5; eta, B2 maila izanez gero, 4/5.

Euskara merezimendu gisa baloratzean, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitzagatik, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/12 emanen da.

10. Prozeduran parte hartzen dutenen puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, oposizioaldian puntuaziorik handiena dutenen alde ebatziko da.

Berdinketak bere horretan badirau, artikulu honetako 9. a) apartatuan (Merezimendu profesionalak) puntuazio handiena lortu duen pertsonaren alde ebatziko da, eta, bat baldin badatoz, apartatu horretako azpiapartatu bakoitzean lortutako puntuazio handiena hartuko da kontuan, zerrendatzen diren hurrenkeran.

Arestian ezarritako irizpideak aplikatuta ere berdinketak jarraitzen badu, kalifikazio epaimahaiak eginen duen berariazko zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratuko da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetatik eta izenetik abiaturik.

11. Oposizio-lehiaketa bidez deitutako egonkortzeko hautapen prozeduretan, lanpostu hutsen %7 gutxienez gorde eginen da %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonentzat, baldin eta hautaprobak gainditzen badituzte eta, aipatutako desgaitasun gradua eta bete beharreko lanarekin eta eginkizunekin bateragarria dela frogatzen badute.

12. Oposizio-lehiaketa bidez deitutako egonkortzeko hautapen prozeduretan, lanpostu hutsen %2 gorde eginen da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat, baldin eta hautapen prozesuak gainditzen badituzte eta beren egoera egiaztatzen badute.

13. Desgaitasuna dutenentzat eta genero-indarkeriaren biktimentzat gordetako txandetan lehiatzen diren parte-hartzaileek txanda irekiko hautagaien hautaproba berberak eginen dituzte. Txanda horietako edozeinetan lanpostu hutsen bat bete gabe geldituz gero, izangaiek hautaprobak gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa lortu ez dutelako, txanda irekikoei gehituko zaie.

14. Prozedura horietan, ez da funtzionarioen arteko igoera txanda murrizturako erreserbarik egonen.

15. Oposizio-lehiaketen prozeduretan esparru ezberdinei atxikitako lanpostuak badaude, eta horien deialdia egitea, otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, organo desberdinei badagokie, deialdi bakar batean metatzen eta onesten ahalko dira, eta deitutako lanpostu kopuru handiena zer kudeaketa esparruri atxikitzen zaion, bertako organoak onartu eta tramitatu beharko ditu. Lanpostu kopuruan berdinketa gertatuz gero, deialdia Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak eginen du.

16. Oposizio-lehiaketa bidez tramitatzen diren egonkortze prozeduren ondorioz, aldi baterako kontratazioorako izangaien zerrendak eratuko dira, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz.

Zerrenda horiek subsidiarioki aplikatuko dira, funtzio publikoan sartzeko hautapen prozesu baten ondorioz indarrean dauden kontratazioorako izangaien zerrenden atzetik.

**9. artikulua.** Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozedura.

1. Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozeduraren bidez tramitatzen diren egonkortze prozedurak artikulu honetan xedatutakoari egokituko zaizkio, eta ondoren zehazten diren merezimenduak baloratuko dira:

a) Merezimendu profesionalak:

Administrazio publikoetan, deialdi bakoitza argitaratzen den egunera arte, egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 60 punturekin, puntuazio honen arabera:

a.1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko lanpostu berean, egindako zerbitzuak: 3 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

a.2) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, beste lanpostu batzuetan, egindako zerbitzuak: 1,5 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

a.3) Beste administrazio publiko batzuetan, lanpostu berean edo beste lanpostu batzuetan, egindako zerbitzuak: 0,75 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaio.

2. Gehienez ere 60 puntu emanen dira a) apartatu honetan.

3. Zerbitzu-emate bakoitza hasten denetik amaitzen den arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.

4. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5. Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan betetako lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira.

Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuengatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

6. Aurreko azpiapartatuetan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk, gehienez ere 40 puntu:

b.1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan deialdi honen xede den lanpostu berean sartzeko prozesu bat gainditu izana, lanposturik gabe, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratutako deialdietan: 14 puntu lanposturik gabe gaindituako deialdi bakoitzeko.

b.2) Ingelesa, frantsesa eta alemana:

Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik, plantilla organikoaren arabera honako lanpostu hauetan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez denean: kazetaria, prestakuntzako eta enpleguko erdi mailako tituluduna, gizarte-langilea, gizarte-hezitzailea, lan-harremanetako diplomaduna, liburutegiko arduraduna, turismo jardueretako ofiziala, basozaina, administraria, gelako burua, koordinazioko operadore-ofiziala eta koordinazioko operadore laguntzailea, telefonista-ofiziala eta telefonista, errepideetako zaintzailea eta etxezaina, bai eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen A eranskinean (Osasun estamentuak) jasotako osasun arloko lanpostuak ere (11/1992 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da): 5 puntu gehienez hizkuntza bakoitzagatik.

b.3) Euskara:

Euskara jakitea puntuazio honekin baloratuko da:

1. Eremu euskaldunean: Euskara jakiteagatik, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: 11 puntu gehienez.

2. Eremu mistoan: Euskara jakiteagatik, plantilla organikoaren arabera honako lanpostu hauetan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: kazetaria, prestakuntzako eta enpleguko erdi mailako tituluduna, gizarte-langilea, gizarte-hezitzailea, lan-harremanetako diplomaduna, liburutegiko arduraduna, turismo jardueretako ofiziala, basozaina, administraria, gelako burua, koordinazioko operadore-ofiziala eta koordinazioko operadore laguntzailea, telefonista-ofiziala eta telefonista, errepideetako zaintzailea eta etxezaina, bai eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen A eranskinean (Osasun estamentuak) jasotako osasun arloko lanpostuetan ere (11/1992 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da): 7 puntu gehienez.

2. eta 3. apartatuetako oharrak:

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari aurreko apartatuetan hizkuntza bakoitzarentzat ezarritako baloraziorik handiena emanen zaio.

Titulu edo ziurtagiri hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 maila izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 jasoko da; A2 maila izanez gero, 2/5; B1 maila izanez gero, 3/5; eta, B2 maila izanez gero, 4/5.

Euskara merezimendu gisa baloratzean, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitzagatik, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/12 emanen da.

2. Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozeduran parte-hartzaileen puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, artikulu honetako 1.a) apartatuan (Merezimendu profesionalak) puntuazio handiena lortu duen lehiakidearen alde ebatziko da, eta bat baldin badatoz, azpiapartatu bakoitzean lortutako puntuazio handiena hartuko da kontuan, zerrendatzen diren hurrenkeran.

Arestian ezarritako irizpideak aplikatuta ere berdinketak jarraitzen badu, kalifikazio epaimahaiak eginen duen berariazko zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratuko da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetatik eta izenetik abiaturik.

3. Merezimendu-lehiaketa bidez deitutako egonkortzeko hautapen prozeduretan, eskainitako lanpostu guztiak txanda irekiaren bidez beteko dira, eta ez da egonen igoera txandarik, ez eta desgaitasuna dutenentzako edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako lanpostuen erreserbarik ere.

4. Merezimendu-lehiaketen prozeduretan esparru ezberdinei atxikitako lanpostuak badaude, eta horien deialdia egitea, otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, organo desberdinei badagokie, deialdi bakar batean metatzen eta onesten ahalko dira, eta deitutako lanpostu kopuru handiena zer kudeaketa esparruri atxikitzen zaion, bertako organoak onartu eta tramitatu beharko ditu.

5. Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozeduraren bidez tramitatzen diren egonkortze prozeduretatik ez da aldi baterako kontratazziorako izangaien zerrendarik aterako.

**10. artikulua.** Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan agertzen diren lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketei aplikatu beharreko araudia.

1. Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartutako lanpostuak barne-mugikortasuneko prozedura batean eskainiko dira, lekualdatze-lehiaketa bidez, eta hartan parte hartzen ahalko dute deialdiaren xedeko lanpostu berean izendapena duten enplegatu finkoek.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari atxikitako lanpostuen kasuan, lekualdaketa egin baino lehen, aldez aurreko barne-egokitzapena tramitatuko da, foru legedekretu honen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

2. Lanpostuak lekualdatze bidez betetzeko prozeduren deialdiak, egonkortzeko eskaintza publikoak ukitutako lanpostuak barne hartzen dituztenak, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen ahalko dira 2023an, eta horietan jasoko dira prozesuaren ezaugarriak, bai eta lanpostuak betetzeko hautapen prozeduraren fase bakoitza tramitatzeko epeak ere. Honako hauek izanen dira:

a) Prozeduran parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 10 egun natural.

b) Deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendei alegazioak aurkezteko epea: 3 egun natural.

c) Merezimenduen behin-behineko balorazioari alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

d) Lanpostu hutsak aukeratzeko epea: 5 egun natural.

3. Lehiaketak kalifikatzeko epaimahaiak deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun beretik aurrera eratzen ahalko dira.

4. Prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak deialdiaren web fitxan argitaratuko dira. Baztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartutakoen behin betiko zerrenda, eta Nafarroako Gobernuaren atariko deialdiaren web fitxan argitaratzeko aginduko da.

5. Artikulu honen babesean deitzen diren lekualdatze-lehiaketetan, merezimendu bakartzat hartuko dira administrazio publikoetan egindako zerbitzuak, eta puntu bat emanen da urteko, kontuan hartuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek deialdia argitaratzen den egunean aitortutako antzinatasuna.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaio.

2. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Lehiakideak puntuetan berdindurik baldin badaude, ebatziko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan zerbitzu ematen denbora gehien daramanaren alde. Berdinketak jarraitzen badu, kalifikazio epaimahaiak horretarako berariaz eginen duen zozketa bakar baten bidez erabakiko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratuko da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetatik eta izenetik abiaturik.

6. Lehiakideei ebazpen bidez esleituko zaizkie lanpostuak, prozesuaren ondoriozko lehentasun hurrenkeraren arabera lanpostu hutsak aukeratu ondotik. Prozeduran parte hartzen duten pertsona guztiak egun berean laneratuko dira, ebazpenean ezartzen den egunean.

7. Lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko prozeduren ebazpena formalizatuko da egonkortze prozeduretan lanpostuak esleitu aurretik.

**11. artikulua.** Aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrendak, egonkortze prozedurak tramitatu bitartean aplikatuko direnak.

1. Foru lege-dekretu honetan xedatutakoa betez, egonkortze prozedura batzuk tramitatuko dira, eta prozedura horien ondorioz kasuan kasuko lanpostuetarako aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak eginen dira. Hori horrela, zerrenda horiek prestatu arteko epe horretan indarra galduko duten aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrendarik badago, langileen arloan eskumena duten organoek zerrenda horien indarraldia luzatzen ahalko dute.

2. Nafarroako 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen lehenengo xedapen iragankorrari jarraiturik, kontratazio zerrenda batzuk luzatu ziren. Kontratazio zerrenda horietatik kanpo geratu izangaiak berriz ere sartzen ahalko dira zerrendetan, baldin eta zerrendari ezarritako iraungitze-dataren aurreko urtean baztertuak izan baziren kontratazio eskaintza bati edo izangaiak sinatutako kontratuari uko egiteagatik, eta berriz ere zerrendetan sartzeko eskatzen badute foru lege-dekretu honek indarra hartu eta hilabeteko epean.

3. Egonkortze prozedurak tramitatzen diren bitartean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontratazio esparruetan dauden aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrendak eratu ziren eremutik kanpo erabiltzen ahalko dira, baldin eta izangairik ez badago deialdia egiten den kontratazio eremuan aplikatu beharreko zerrendetan; inguruabar horrek ez du berekin ekarriko, inola ere ez, izangaien lehentasun hurrenkera aldatzea.

4. Baldin aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera kontratatzea ezinezkoa bada, langileen arloan eskumena duen organoak enplegu eskatzaileen zerrenda bat eskatzen ahalko dio Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, kontratazioak egiteko.

**12. artikulua.** Konpentsazio ekonomikoa enplegua egonkortzeko prozedurak ez gainditzeagatik.

Zerbitzuan emandako urte bakoitzeko ordainsari finkoen hogei egunen besteko konpentsazio ekonomikoa emanen da, eta urtebetetik beherako aldiak hilabeteka hainbanatuko dira (hamabi hileroko, gehienez ere). Konpentsazio ekonomiko hori administrazio-kontratudun langileentzat izanen da, baldin eta, jardunean egonik, Administrazioarekin duten harremana amaitzen bada ez zaielako esleitu egonkortzeko hautapen prozesuetan deitutako lanposturik.

Unibertsitateaz kanpoko irakasleen kasuan, aurreko paragrafoan ezarritakoa egokitu eginen da langile horien sarrerak dituen berezko berezitasunetara, eta erreparatuko zaio egonkortzeko hautapen prozesuetan deitu den lanpostu kopuruari, gehienez ere, espezialitate, hizkuntza eta, hala badagokio, atzerriko hizkuntza-eskakizun bakoitzeko.

Izangaiak ez baldin badu parte hartzen lanpostuak egonkortzeko hautapen prozesuan ez du eskubiderik izanen, inola ere ez, konpentsazio ekonomikoa jasotzeko. Apartatu honetan adierazitako ondorioetarako, izangaiak prozeduran parte hartu ez duela ulertuko da hark prozeduran jarraitzen ez duenean hari berari egotz dakiokeen arrazoi batengatik.

**Lehen xedapen gehigarria.** Nafarroako gainerako administrazio publikoen atxikipena.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak, beren ardurakoak diren aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak onetsi eta tramitatzeko orduan, foru lege-dekretu honen II. tituluan jasotako erregulazioari atxikitzen ahalko zaizkio, osorik edo partez, horietako bakoitzean organo eskudunak berariaz erabakitzen duenaren arabera.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak behar den laguntza eta koordinazioa emanen die Nafarroako toki-erakundeei aldi baterako enplegua egonkortzeko prozedurak tramitatzeko.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Hezkuntza Departamentuak aldi baterako enplegua egonkortzeko tramitatzen dituen prozedurei aplikatu beharreko arauak.

Unibertsitateaz kanpoko irakasleei, zeinak aipatzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren V. tituluan, foru lege-dekretu honen artikulu hauek baizik ez zaizkie aplikatuko:1.a, 3.a, 4.a, 5.a, 8.a (11. eta 14. apartatuak), 9.a (3. eta 6. apartatuak), 11.a eta 12.a. Gainerakoan, langile horien araudi espezifikoa aplikatuko da.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak tramitatzen dituzten aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozedurei aplikatu beharreko arauak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eremuetan, arau honen 10. artikuluan ezarritako lekualdatze-lehiaketaren aurretik, aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozedurak deituko dira, eta horietan parte hartzen ahalko dute urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean jasotzen diren estamentu eta espezialitate bereko enplegatu finkoek.

2. Prozeduren deialdian prozesuaren ezaugarriak jasoko dira, eta aplikatuko da Osasuneko kontseilariaren urriaren 28ko 129/2008 Foru Aginduan xedatutakoa (foru agindu horren bidez ezarri zen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aldez aurreko barne-egokitzapen sistema arautzen duen prozedura berezia), honako salbuespen hauekin:

2.1. Hauek izanen dira prozesua egiteko epeak:

a) Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 7 egun baliodun.

b) 5 egun balioduneko epea izanen da aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozesuaren tramiteen kontra erreklamazioak aurkezteko, zer egintza edo ebazpenen aurka erreklamatu nahi den, hura argitaratu edo jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Dagokion lan-eremuko Profesionalen Zerbitzuko buruari edo zuzendariari aurkeztuko zaio, eta hor erregistratu beharko da berariaz.

c) Erreklamazioak ebazteko epea 7 egun baliodunekoa izanen da.

2.2. Deialdia eginen da, bakar-bakarrik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek onesten duten enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartzen diren lanpostuetarako. Ez dira eskainiko beste lanpostu bat lortzen duten izangaiek hutsik uzten dituztenak.

Aldez aurreko barne-egokitzapenaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuetarako deialdia eginen da foru lege-dekretu honen 10. artikuluan ezarritako lekualdatze-lehiaketan.

2.3. Parte hartzen duten langile finko interesdunen mugikortasuna gauzatuko da dagokien lan-eremuko estamentu eta espezialitate berean.

2.4. Aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozeduran eskaintzen diren lanpostu hutsak betetzeko, lehentasuna izanen dute eskainitako lanpostu hutsaren estamentu eta espezialitate bereko lanpostu bat betetzen ari diren langileek, baldin eta destinoa badute egokitzapena egiten den oinarrizko antolamendu-unitatean. Gerta daiteke egokitzapena eginen den antolamendu-unitatean langile batek baino gehiagok interesa izatea hizpi-

de dugun prozedura honetan parte hartzeko; gerta daiteke, hala berean, prozeduran parte hartzeko interesa dutenek ez izatea destinoa egokitzapena egiten den oinarrizko antolamendu-unitatean. Horrelakoetan, eskaintzen den lanpostu hutsa esleituko zaio antzinatasun aitorturik handiena egiaztatzen duen izangaiari.

Lehiakideak puntuetan berdindurik baldin badaude, ebatziko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan zerbitzu ematen denbora gehien daramanaren alde. Berdinketak bere horretan badirau, zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratuko da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetatik eta izenetik abiaturik.

2.5. Aldez aurreko barne-egokitzapenean lehiakideei egokitu zaizkien lanpostuak esleitzeko ebazpena formalizatu egin beharko da foru lege-dekretu honen 10. artikuluan aipatzen den lekualdatze-lehiaketa ebatzi aurretik.

2.6. Osasun arlokoak ez diren eta lehiakideei aldez aurreko barne-egokitzapenean egokitu zaizkien lanpostuak esleitzeko ebazpena onetsi egin beharko da 2022ko abenduaren 31 baino lehen.

**Xedapen iragankor bakarra.** Tresna informatikoak administrazio-araubideko kontratazioaren erregulazio berrira egokitzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek sei hilabeteko epea izanen dute, foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik, egokitzeko langileak kudeatzeko tresna informatikoak I. tituluan jasotako xedapenetara.

**Azken xedapenetako lehena.** Behar diren baliabideak gaitzea foru lege-dekretu hau betearazteko.

Behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak gaituko dira arau hau betetzearen ondoriozko hautapen prozesuak behar bezala kudeatzeko.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluaren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 23an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria, María Victoria Chivite Navascués

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía.

**I saila:**
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

## Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako plan estrategikoa.

*EBAZPEN-PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2022ko maiatzaren 31n eginiko bilkuran, erabaki zuen Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako plan estrategikoari ebazpen-proposamenak aurkezteko epea **2022ko ekainaren 8an bukatuko dela, 12:00etan**. Aipatu plana 2022ko maiatzaren 12ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2021-2025

*EBAZPEN-PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak, 2022ko maiatzaren 31n eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari (2021-2025) ebazpen-proposamenak aurkezteko epea **2022ko ekainaren 8an bukatuko dela, 12:00etan**. Aipatu plana 2022ko apirilaren 27ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950